

36.zk
2011ko maiatza

IDEA


NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUAREN ALDIZKARIA

**inor ere ez
prestakuntzarik gabe
trebakuntza profesionaleko
aukera berriak**

HLPK



**EHUNGINTZA
ADMINISTRAZIOA
ETA KUDEAKETA
ON LINE
HELPUK**



3. Orrialdea
Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarra Espainian
 Enrique Roca. Hezkuntza Ministerioa

15. Orrialdea
Lanbide Prestakuntzako Programak Nafarroan
 Jesús M^a Arbea. Ikastetxeen Plangintza eta Garapenerako Atala



19. Orrialdea
Gaitasunak Ebaluatzeko eta Ziurtatzeko Prozesuak bizitza osoko trebakuntzaren oinarritzko elementu
 Pedro González Felipe. Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendari Nagusia

21. Orrialdea
Ikasketa bizitzan zehar. Helduen Prestakuntza
 José Luis Muñoz. Helduen Hezkuntzako Atala

**LIFE LONG
 LEARNING**



23. Orrialdea
Ikasketa bizitzan zehar. Helduen prestakuntza
 Elena Vallés. Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzuaren Zuzendaria

26. Orrialdea
Huarte BHI. Konfiantza, hurbiltasun eta zorroztasun giroa
 Antonio Lora. Zuzendaria



30. Orrialdea
Helduen Hezkuntza. "José M^a Iribarren" Oinarritzko Hezkuntzako Ikastetxea
 Jaime Malón. Zuzendaria


32. Orrialdea
Zubi Zentroa. Adeitasunez eta argitasunez dibertsifikatzea
 Jesús Gallego. Zuzendaria eta Hezitzailea




36. Orrialdea
Urruneko irakaskuntza bateragarria da hizkuntzen ikasketarekin? That's English Programa esperientzia
 Maite Osés. NAUHEOko Zuzendaritza



39. Orrialdea
18. urtetik gorakoentzako Bigarren Hezkuntza. Félix Urabayen Institutoa
 Fernando Carbajo. Zuzendaria



41. Orrialdea
HKPP: Bulegoko Laguntzaile eta Oinarritzko Informatika. Santa Catalina Labouré Eskola
 M^a Carmen Arbella. Zuzendaria



Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarra Espainian



Enrique Roca

Hezkuntza Ministerioa

Laburpena

XIX. mendean, alfabetatzea eta haur guztiek lehen hezkuntza egin ahal izatea izan ziren herrialde industrializatu gehienetako helburu nagusiak; hain zuzen ere, 14 urteetara luzatu nahi izan zuten hezkuntza.

XX. mendean, aurreko helburua lortu zuten herrialdeen jomuga 16 urteak izan ziren, eta, XXI. mendeko hezkuntzaz kezkatuta, prozesu instituzional bat abiarazi zuten, gogoeta egiteko eta jarduteko. Horren ondorioz, errotik eraberritu ziren hezkuntzaren inguruko gizarte helburuak. Prozesu horrek —besteak beste, Unescok, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) eta Europar Batasunak (EB) parte hartu zuten— iraultza ekarri zuen hezkuntza ulertzeko moduan, eta honela gauzatu zen: 1999. urtean Delors-en txostenarekin, 2001. urtean Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programako (PISA) lehen txostenaren argitalpenarekin eta 2002. urtean EBk onartutako 2010eko Hezkuntza eta Prestakuntza Programarekin.

2000. urtean, Europar Batasunak erabaki zuen hezkuntzan nabarmen gehiago inbertitzea, eskola uzte goiztiarra zorrozki murriztea, bizitzan zeharreko hezkuntza eta prestakuntza sustatzea, oinarritzko beste eskumen batzuk zehaztea eta irakasleen eta ikasleen mugikortasuna bultzatzea.

Espainiako eskola uzte goiztiarraren kopurua Europar Batasuneko handienetakoa da, eta

horrek agerian uzten du espainiar gizarteak 2020rako duen erronka handia.

Porrota eta uzte goiztiarra bi fenomeno desberdin dira; izan ere, bata derrigorrezko hezkuntzari dagokio, eta bestea derrigorrezko hezkuntzaren ondokoari; dena dela, Espainian, derrigorrezko ikasketak amaitzean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako titulua lortu

ez duten ikasleen porrotak baldintzatuta dago, neurri handi batean, uzte goiztiarra.

Artikulu honetan, eskola uzte goiztiarraren arrazoiak zein diren eta horri aurre egiteko erakundeek zer proposamen egin dituzten zehazten da. Artikulu hori *Revista de Educación* aldizkariaren 2010. urteko txosten berezian argitaratu da.

XXI. mendeko hezkuntza

XIX. mendean, alfabetatzea izen zen hezkuntza helburu nagusia, eta, herrialde industrializatu gehienetan, lehen hezkuntza haur guztiek egin ahal izatea; horrez gain, 14 urteetara luzatzen saiatu ziren. XX. mendean, helburu hori lortu zuten herrialdeen jomuga 16 urteak izan ziren, eta horietako askok lortu zuten helburu hori mendearen bigarren erdialdean, nahiz eta planteamendu elitista batzuetan ezjakintasunerako eskubidea aldarrikatu.

Hezkuntza arloko erronka horietan lehena, 14 urte arteko derrigorrezko eskolatzea, 1970eko Hezkuntzari buruzko Lege Orokorraren bidez (HLO) jorratu zen Espainian, hezkuntza aldetik aurreratuago zeuden herrialdeetan baino dezente geroago. 1990 arte itxaron behar izan zen derrigorrezko hezkuntza 16 urte arte ezartzeko, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legearen bidez (LOGSE). Hala, bi legeen bidez egin nahi izan zitzaion aurre Espainian hezkuntza aldetik zegoen atzerapenari eta hezkuntza modernizatzen lagundu, nahiz eta traba ugari gainditu behar izan ziren hezkuntza munduaren barruan eta kanpoan.

Joan den mendeko azken urteetan, lege berria ezartzen hasi zirenean, prozesu bat jarri zen abian hezkuntzaren inguruko kezka zuten XXI. mendeko nazioarteko erakunde eraginkorrenetan, horren gainean gogoeta egiteko eta jarduteko. Prozesu horren ondorioz, errotik eraberritu ziren hezkuntzaren gaineko gizarte helburuak eta jomugak. Prozesu horrek —besteak beste Unescok, Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak eta Europar Batasunak parte hartu zuten— iraultza ekarri zuen hezkuntza ulertzeko moduan, eta honela gauzatu zen: 1999. urtean Delors-en txostenarekin, 2001. urtean Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programako (PISA) lehen txostenaren argitalpenarekin eta 2002. urtean EBK onartutako 2010eko Hezkuntza eta Prestakuntza Programarekin.

Unescoren Batzar Nagusiak nazioarteko batzorde bat eratzea erabaki zuen, XXI. mendeko hezkuntzari eta ikaskuntzari buruzko gogoeta egiteko. Batzorde horren lehendakari Jacques Delors eman

zitzaion, eta hark, beste 14 pertsonarekin batera, Hezkuntzak altxor bat gordetzen du izeneko txostena prestatu zuen. Txosten hori 1999an ezagutarazi zuten (Delors, 1999).

Txosten horren arabera, beharrezko utopia bat da hezkuntza, bermatzailea baztertzaila izan beharrean, eta gizarte kohesioa eta parte-hartze demokratikoa lortzeko euskarri nagusia. Bertan esaten denez, bizitzan zeharreko hezkuntza da XXI. mendean sartzeko gakoetako bat, eta baieztatzen da hezkuntza oinarritzko lau zutabetan bermatzen dela (bermatu behar duela): kontua da herritarrek ezagutzen ikastea, egiten ikastea (ez bakarrik kualifikazio profesionala lortzeko, baizik eta banakoak egoera ugari aurre egiteko eta taldean lan egiteko gaitasuna lortzeko), elkarrekin bizitzen ikastea (elkar-bizitzea, herritartasuna gauzatzea) eta izaten ikastea.

ELGAK 1992. urtetik, *Education at a Glance* argitalpenarekin, adierazle nazioarteko sistema bat eskaintzen du, eta horrek bide ematen du hurbilketa sistematiko bat egiteko erakunde horretako herrialdeek dituzten hezkuntza sistemen analisi konparatura (ELGA, 2009a); 2005etik, espainierara itzultzen da txosten hori, *Panorama de la Educación* (ELGA, 2009b) izenarekin; eta Ebaluazio Institutuak, 2006. urtetik, *Panorama-ri* buruzko Espainiako txostena aurkeztu du; bertan, ELGaren adierazle alderti garrantzitsuenek buruzko begiratu espezifiko bat ematen du, Espainiaren ikuspegitik (Ebaluazio Institutua, 2009a).

ELGAK ikasleen ikaskuntzen hezkuntza emaitzekin egin zion aurre adierazle sistemak osatzeko beharri. Horrela sortu zen Ikasleak Ebaluatzeko Nazioarteko Programa (PISA). Bertan, herrialde parte-hartzaileek erabaki zuten 15 urteko ikasleek oinarritzko gaitasunak nola eskuratzen dituzten ebaluatu behar zela; adin horretan, proiektuko herrialde parte-hartzaileetako hezkuntza sistema gehienetan, ikasleak derrigorrezko hezkuntza amaitzean daude. Proiektua burutu zen lehen ariketa egin zenean, 2000. urtean, eta PISAko lehen txostena argitaratu zenean, 2001. urtearen

amaieran (ELGA, 2001). ELGAK, oinarritzko gaitasunen definizioari eta neurriari buruzko ariketa praktikoki hori egiteaz bat, DeSeCo izeneko proiektua jarri zuen abian, eta, horren bidez, erakunde horrek proposatutako oinarritzko gaitasunen definizioa eta hautapena azaldu zituen (ELGA, 2002).

Europar Batasunak hasiera-hasieratik txertatu zituen Unescoren eta ELGaren ekarpenak hezkuntza eta prestakuntzaren arloko lankidetzari buruzko gogoetan eta proposamenetan, eta horren bidez sortu zen Batasuneko estatuen konpromiso bateratua. Lisboako Europako Kontseiluak, 2000ko martxoan egindakoak, Lisboako Estrategia izenekoak zehaztu zuten, 2010erako helburu hau hartuta: «Europa ezagutzen oinarritutako munduko ekonomia lehiakorrena eta dinamikoena bihurtzea, ekonomia aldetik modu iraunkorrean hazteko gai, enplegu gehiago eta hobeak eta gizarte kohesio handiagoa izanda». Koordinazio metodo ireki bat erabiltzea erabaki zen, helburu, egutegi, adierazle eta erreferentzia puntu, kontrol eta ebaluazio bateratuak zehaztuta, eta elkarlanean aritzea hala berrikuntza eta kalitate proiektuetan nola praktika egokien zabaikundean. Funtsezko ondorioen artean, Kontseiluak erabaki zuen hezkuntzan nabarmen gehiago inbertitzea, eskola uzte goiztiarra zorrozki murriztea, bizitzan zeharreko hezkuntza eta prestakuntza sustatzea, oinarritzko beste eskumen batzuk zehaztea eta irakasleen eta ikasleen mugikortasuna bultzatzea.

Stockholmeko Europako Kontseiluak, 2001ekoak, hiru helburu estrategiko eta hamahiru helburu zehatz ezarri zituen, aurrekoak zehazteko. Bartelonako Europako Kontseiluak, 2002ko martxoak, 2010eko Hezkuntza eta Prestakuntza Programa ezarri zuen, 33 adierazleren zerrenda adierazgarri bat zehazten zuena; horrez gain, aurrerapen txostenak egitea erabaki zuen, eta SIGB (Standing Group on Indicators and Benchmarks edo Adierazle eta Erreferentzia Puntuen Talde Iraunkorra) sortu zuen, estatu kideetako ordezkariak osatua, adierazleak eta erreferentzia puntuak garatzeko eta aurrerapenaren jarraipena egiteko. SIGBren lehenengo

bilera 2002ko uztailan izan zen.

Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarraren Europako erreferentzia puntuak (benchmarks), definizioa eta neurria.

Europako helburua, XXI. mendean hezkuntza gehiago eta hobea izatea denontzat, Bruselako Europako Kontseiluan zehaztu zen lehen-lehenik, 2003an. Horretarako, bost erreferentzia puntu (benchmarks) ezarri ziren 2010erako, Europako hezkuntza sistemetan batez beste espero zen errendimenduaren helburu zehatz gisa:

- %15etik behera kokatzea PISAren arabera irakurtzeko gaitasuna 1. mailakoa edo txikiagoa duten 15 urteko ikasleen gehieneko ehunekoa.

- %10era murriztea derrigorrezko bigarren hezkuntza egina duten eta ondoko ikasketekin jarraitu ez duten 18 eta 24 urte bitarteko herritarren ehunekoa.

- %85eraino handitzea derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoa burutu duten 20 eta 24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa.

- %15 handitzea matematika, zientzia eta teknologiako goi mailako ikasketetan graduatutakoak guztizkoa, eta ikasketa horietan graduatutakoak artean dagoen genero desoreka murriztea.

- Gutxienez 25 eta 64 urte bitarteko helduen %12,5ek prestakuntza ikastaroetan parte har dezaten lortzea.

Lehenengo erreferentzia puntuaren bidez, balioetsi nahi da Europako gazteek, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, maila onargarria lortzen ote duten oinarritzko gaitasunetan. Horretarako, PISAk neurtutako gaitasunetara jotzen da 2000. urtetik: irakurmenari dagokiona, matematikoa eta zientifikoa. Ondoko erreferentzia puntu hauek hezkuntza gazte eta herritar gehienengana zabaltzeko helburuari dagozkio: bigarrena eta hirugarrena, gazte gehienek ikasten jarrai dezaten derrigorrezko hezkuntzaren ondoko titulu bat lortu arte, eta hurrengo biak, goi mailako prestakuntza zientifikoteknikoa duten edo bizitzan zeharreko hezkuntzarako sarbidea duten herritarren kopurua areagotzeko. Hau da, hezkuntza herritar guztiengana zabaltzeko zehatzapen doi bat da, Delorsen txostenean proposatu zen bezala.

Europar Batasunak 18 urte artekoen eskolatzeari %90ekoa izatea lortu nahi du, eta derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondoko titulua dutenak %85etik gora izatea. Baina komeni da nabarmentzea helburu hori 2003an zehaztu zela horrela lehenengoz, 1992an lehen hezkuntza hasi zuten espainiar ikasleen lehen belaunaldiak DBH amaitu berri zuenean, 16 urterekin.

Kontseiluak erabaki zuen uzte goiztiarraren kontzeptua baliatuta zehaztea goi mailako derrigorrezko bigarren hezkuntzako eskolatzeari %90etik gora handitzeko helburua; hain zuzen ere, kontzeptu hori 2003tik erabili izan da, hau da, erreferentzia puntu hori hartu zenetik. Uztearen kontzeptuak honako hau adierazten du: 18 eta 24 urte bitarteko zenbat gaztek lortu duten gehienez ere behe mailako bigarren hezkuntza (derrigorrezkoa) eta ez duten jarraitu ikasten edo prestatzen, XXI. menderako lortu nahi den maila lortzeko, hau da, goi mailako bigarren hezkuntza (derrigorrezkoaren ondokoa) lortzeko.

Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarra murriztea, denok hezkuntza eskuratzeko dugun aukera areagotzeko oinarritzko elementu gisa, Europako hezkuntza sistemen erronka nagusietako bat bihurtu da, gazte guztiek bizitzan zehar ikasteko oinarritzko gaitasunak eskuratuko dituztela ziurtatzearekin batera.

2006ko Kontseiluak, hezkuntza eta prestakuntzaren eraginkortasunari eta zuzentasunari buruzko ondorioetan, onartu zuen uzte goiztiarra murrizteak aregotu egin dezakeela enplegarritasuna, lagungarria izan daitekeela gizarte kohesiorako eta indartu egin dezakeela Europako gizarte eredua (Europar Batasuneko Kontseilua, 2006). 2009ko txostenak zuzentasuna, gizarte kohesioa eta herritar aktiboak sustatzeko kapituluaren sartzen du uzte goiztiarra (Europako Batzordea, 2009), eta, hala, nabarmentzen du helburu horiek lortzeko oso garrantzitsuak direla eskola uztea murrizteko politikak.

Bruselako Europako Kontseiluak, 2003an, herriar guztientzat hezkuntza gehiago izateko eta hezkuntza sisteman gehiago irauteko helburua ezarri zuenean, eskola uzte goiztiarraren kontzeptua erabili zuen, helburu hori laburbiltzen baitu. Alabaina, nire iritziz, adierazpena ezezkoan egin zuen: ikasteari edo prestatzeari uzten dioten pertsonen kopurua murriztea. Jadanik adierazi dudan bezala, helburua da gazteek hezkuntza sisteman jarraitzea derrigorrezko hezkuntza bukatu

ondorenean, goi mailako bigarren hezkuntzako ikasketak egin ditzaten, INSNko (Irakaskuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatua, ISCED ingelesezko sigletan) 3. mailako titulua lortzeko. Segur aski, zuzenagoa eta jendearentzat ulergarriagoa izango zen Kontseiluak erreferentzia puntuaren definizioa baieztokian egin izan balu, gutxi gorabehera era honetan: «Europako gazteen %90ek ikasten eta prestatzen jarraitzea derrigorrezko eskolatzeari bukatu ondorenean ere, gutxienez goi mailako bigarren hezkuntzako titularen bat lortu arte».

Beharbada bigarren hezkuntza egiten duten pertsonen ehunekoa %85era iristea proposatzen duen erreferentzia puntu hori gainjarri zelako erabili zen, oso antzeko planteamenduekin, eskola uztearen kontzeptua ezezkoan, eta orokortu egin da, gaur egunera arte.

Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarra murriztea bihurtu da Europako hezkuntza sistemen erronka nagusietako bat.

Halaber, erreferentzia puntu hori biztanleria aktiboaren inkesten bidez neurtzeko hautuak ere lagundu du berori konplexuago egiten (Muñoz, 2009). Definizioa baieztokian egin izan baliz, aipatu duguna bezalako bat egin izan balitz, segur aski kontuan hartuko zatekeen, behintzat modu alternatiboan, gazteak derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa noiz arte egoten diren hezkuntza tasen bidez eta ez lan estatistiken bidez zenbatzeko aukera. Hala, gazteak hezkuntzan eta prestakuntzan noiz arte egoten diren balora daiteke, matrikula tasak 15 eta 19 urte bitarteko adinei aplikatuta edo goi mailako bigarren hezkuntza ikasketetako titulu tasak erabilita; adierazle horiek erabiltzen ditu, esate baterako, ELGAko Hezkuntza Panoramak (2009^a).

Erreferentzia puntu horri dagozkion datuak Europako Lan Indarren Inkesta oinarritzat hartuta ateratzen dira. Inkesta hori Eurostatek koordinatzen du. Espainiako datuak Biztanleria Aktiboaren Inkestatik (BAI) lortzen dira. Inkesta hori INEk egiten du, 1968tik. Emandako definizioarekin bat etorritik, BAI, gehienez ere INSNko 0, 1, 2 edo 3. maila labor bat egin duten eta ikasten ari ez diren edo inkesta egin aurreko lau asteetan ikasten ari ez ziren 18

"Porrota" eta "uzte goiztiarra" bi fenomeno desberdin dira; izan ere, bata derrigorrezko hezkuntzari dagokio eta bestea derrigorrezko hezkuntzaren ondokoari, dena dela, Espainian uzte goiztiarra, neurri handi batean, porrotak baldintzatuta dago.

eta 24 urte bitarteko herritarren ehunekoa hartzen da kontuan. INSNo 3c mailak sartzeak konparazio arazo asko dakartza, eta, horregatik, eztabaida sortzen du.

Nolanahi ere, beharrezkoa da nabarmentzea erreferentzia puntu honetan 18 eta 24 urte bitarteko biztanleek lortu duten prestakuntza hartzen dela kontuan, eta eskola uzteztat jotzen dela batxilergoko titulua edo teknikari titulua ere (erdiko

Derrigorrezko hezkuntzan izandako ikaskuntza arazoak (ikasturtea errepikatzea Espainian) ondo konpondu ez izana da ikasle horiei eskola utzarazten dieten arrazoietakoa bat.

mailako prestakuntza zikloak) lortu ez dutenean Espainian eta ikasten ari ez direnean. Nabarmendu behar da biztanle

horiek, itxuraz, inkesta egin baino urtebete edo bi lehenago amaitu zituztela DBHko derrigorrezko ikasketak, 18 urteko herritarrek badira, eta zazpi edo zortzi urte lehenago, 24 urteko herritarrek badira. Beraz, Europar Batasunak 2008. urtean jasotako azken erreferentzia puntuak, aldi berean, herritar horien gaur egungo prestakuntza islatzen du, eta 2000. urtetik 2008. urtera bitartean ikasten aritu zirela. Bi errealitate horiek erlazionatuta daude, baina desberdinak dira.

Oso garrantzitsua da inguruabar hori kontuan hartzea; erreferentzia puntuak BAIk eskaintzen dituen datuekin neurtzen da, eta inkesta hori oso finkatua eta modu uniformean landua dago Europar Batasuneko herrialde guztietan. Alabaina, modu horretara jarduetak batere arbuigarriak ez diren hainbat eragozpen dakartza adierazle honen ondorioetan. Inkestak 18 eta 24 urte bitarteko biztanleek gaur egun zer prestakuntza duten jasotzen du. Baina gazte horien eskola uzte goiztiarra DBH amaitu ondoko urteetan gertatu zen; beraz, 8 urteko tartea egon liteke une horretatik inkesta egin zen unera. Eskola uztea neurtzeko modu hori eraginkorra da biztanleek inkesta egin zen unean zer prestakuntza zuten jakiteko, baina ez da egokia derrigorrezko eskolatzea amaitu berri duten gazteen gaur egungo hezkuntza egoera baloratzeko, ez eta aipaturiko denbora bitarte horretan hartutako neurriek hezkuntza errealitate horretan zer ondorio izan duten neurtzeko ere.


Bestalde, beharrezkoa iruditzen zait eskola uzte goiztiarraren eta horren neurriaren eta Espainian eskola porrota deitzen denaren arteko desberdinasuna nabarmentzea. Eskola porrotaren kontzeptua erabiltzen da derrigorrezko bigarren hezkuntza aurreikusitako adinean ondo amaitu ez duten gazteen ehunekoa izendatzeko, hau da, 16 edo 17 urteetan, dagozkion ikasketak formalak amaitzean, derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulua lortu ez duten gazteen ehunekoa izendatzeko. Tituluari loturiko eskola porrotaren kontzeptu hori berezkoa du gure herrialdeak (ez da erabiltzen era horretan gure inguruko ia ezein herrialdeetan), eta, hainbat egilek adierazi duten bezala, ez da oso zehatza.

Porrota eta uzte goiztiarra bi fenomeno desberdin dira; izan ere, bata derrigorrezko hezkuntzari dagokio eta bestea derrigorrezko hezkuntzaren ondokoari; dena dela, Espainian uzte goiztiarra, neurri handi batean, porrotak baldintzatuta dago. Derrigorrezko ikasketak amaitzean DBHko titulua lortu ez duten espainiar ikasleek ezin dute formalki jarraitu batxilergoko ikasketak edo erdi mailako prestakuntza zikloak egiten, eta, beraz, Espainiako eskola uzte goiztiarra, hein batean, arrazoi horrek azaltzen du. Hurrengo atalean, eskola porrotak eskola uzteari nola eragiten dion azaltzen saiatuko gara.


Europako edo ELGAko beste herrialdeetan ez da erabiltzen eskola porrotaren kontzeptua derrigorrezko hezkuntzarako ezarritako hezkuntza helburuak lortu ez dituzten ikasleen ehunekoa izendatzeko,

eta ez da galarazten ikasle horiek derrigorrezko hezkuntzaren ondoko ikasketekin jarraitzea ere. Hori bai, kasurik gehienetan, ikasleak derrigorrezko hezkuntza amaitutakoan lortu dituen egiaztagirien arabera izango dira egin ahalko dituen ikasketak edo prestakuntza.

Baina herrialde horietan ere, eskola uzteko arrazoiak, neurri batean,



II. IRUDIA. Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarraren ehunekoaren bilakaera Espainian eta Europar Batasunean.
Iturria: LII Lan Indarren Inkesta (Biztanleria Aktiboaren Europako Inkesta) – Urteko batez bestekoak 2000. urtetik 2008. urtera bitartean eta bigarren hiru hilabeteak aurrekoetan. Eurostat Ebaluazio Institutua.



Espainian, eskola uzte goiztiarra %40 murriztu zen 90eko hamarkadaren hasieran eta %30 hamarkadaren erdialdean, eta egonkor iraun du 2008. urtera arte, beharbada titulua eskatzen delako batxilergoko edo lanbide heziketako ikasketak egiteko.

hezkuntza zailtasunak dira; hain zuzen ere, gazte asko adoregabetsen ditu horrek, eta aukera dutenean uzten dituzte ikasketak, hala derrigorrezko hezkuntza amaitu dutelako nola ezarritako adinera (normalean 15 edo 16 urteetara) iritsi

direlako. Hau da, derrigorrezko hezkuntzan izandako ikaskuntza arazoak (esate baterako, ikasturtea errepikarazten dutenak, Espainiaren kasuan) ondo konpondu ez izana pisuzko arrazoiak da ikasle horiei eskola utzarazteko. Espainiako kasuaren berezitasuna ez da bakarrik ikaskuntza zailtasunek ikasketekin edo prestakuntzarekin jarraitzeko gogo kentzen dietela arazo horiek dituztenei, baizik eta araudiak ez zuela hori egiten uzten, behintzat 2006 arte. Nolanahi ere, komeni da nabarmentzea gaur egun DBHko tituluak ezartzen duen muga, beharrezkoa izanik ere, Europako etsenpluak erakusten duen bezala, ez dela nahikoa eskola uztearen neurriari eta arrazoiari aurre egiteko. Aurrerago helduko diogu osteraz auzi horri.

Uzte goiztiarra Espainian: Europarekiko konparazioa eta erkidegoen arteko desberdintasunak

Eskola uzte goiztiarra, 2008an, %14,9koa izan zen 27ko Europar Batasunean, eta %31,9koa Espainian, bosgarrena kopurutan, Liechtensteinen, Turkiaren, Maltaren eta Portugalen ondoren. Gainera, Espainia da, Norvegia, Finlandia eta Suediarekin batera, 2000. urtetik 2008. urtera bitartean eskola uztea areagotu den lau herrialdeetako bat. Kopuru horiek ezin eztabaidatuzkoak dira, eta agerian uzten dute espainiar gizarteak duen erronka handia, baldin eta serioski planteatzen bada 2020rako berriro ezarri den hezkuntza helburu hori lortzea (Europako Batzordea, 2009).


Komeni da gogoraraztea Europar Batasunak 2003an zehaztutako helburua dela eskola uztea murriztea. Adierazi den bezala, orduan amaitu zuen derrigorrezko bigarren hezkuntza Espainian 16 urteetara arte hezkuntza sistemaren egon behar izan zuten ikasleen lehen belaunaldiak. Garrantzitsua da inguruabar hori kontuan hartzea Espainiako eskola uzte goiztiar ugaria azaltzeko. Eskola uztea murriztea edo, hobeto esan, derrigorrezko hezkuntzaren ondoren gazteen %90ek hezkuntzan edo prestakuntzan jarraitzea ez zen hezkuntza sistemaren eta


gizartearen helburua garai hartan, eta orain adierazle horren bidez jaso diren kopuruak hain zuzen ere 2000tik 2008ra bitartean derrigorrezko ikasketak amaitu zituzten gazteen egoera akademikoari buruzkoak dira. Ezin da helburu bat lortu, baldin eta helburu hori ezarri ez bada, eta Espainiako gizarteak ez du helburu hori ezarri 2006ra arte, Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa onartu zen arte.

Hori esanik, egoeraren larria nabarmendu behar da, eta zein garrantzitsua den horri irmoki aurre egitea, baldin eta XXI. mendeko hezkuntza helburu eta

III. IRUDIA. Hezkuntza eta prestakuntza uztearen ehunekoa autonomia erkidegoen arabera. 2008

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Urteko batez bestekoak. INE. Ebaluazio Institutua.





IV. IRUDIA. 15-19 urtekoen eskolatzeko tasa ELGA (1995 eta 2007)
Iturria: 2009ko Hezkuntza Panorama: ELGAko adierazleak.

ematen dituen eskola uztearen kopuruak osatu egin behar dira, nire iritziz, hezkuntza datu berriak ematen dituzten beste adierazle batzuekin, baldin eta gaur egungo eta oraintsuko hezkuntza egoeraren ikuspegi doituago bat lortu nahi bada, eta ez soilik biztanle helduek lortako prestakuntzarena. Baldin eta adierazletzat hartzen badira ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzen duten adinean dagoen matrikula tasa eta goi mailako bigarren hezkuntzan dagoen eskolatzeko tasa, oso informazio osagarri baliotsua lor liteke erreferentzia puntu honetarako.

1995etik 2007ra bitartean goi mailako bigarren hezkuntzako titulua zuten espainiarren tasa, ELGAko eta Europar Batasuneko tasei dagokien, 15 eta 16 puntuetatik 8 eta 11 puntuetara gutxitu da hurrenez hurren.

planteamendu berberak izan nahi baditugu.

Espainian eskola uzte goiztiarrak kopuru aldetik izan duen bilakaera oso adierazgarria da. 90eko hamarkadaren hasieran, herritarren %40k utzi zuten eskola. Urte haietan, BAIn galdetutako gazteek OHO zuten egina, hau da, 14 urte arteko derrigorrezko hezkuntza. Adin horretatik aurrera, batxilergo bateratu eta balioanitzekoarekin edo erdi mailako lanbide heziketarekin jarrai zitekeen ikasten, OHOk titulua lortu zen edo ziurtagiriren bat lortu zen kontuan hartuta. Baina gazte guztiek jarrai zezaketen ikasten, bide akademikoan edo profesionalen.

Eskola uzte goiztiarra murriztu egin zen Espainian: 90eko hamarkadaren hasieran %40 zen, eta hamarkadaren erdialdean %30. Eta balio horretan iraun du, aldaketa txiki batzuekin, 2008. urtera arte (Ebaluazio Institutua, 2009a). Kopuruek egonkor irautearen zergatia, beste inguruabar batzuen artean, hauxe da: hezkuntza sistema berrian ikasi duten gazteak sartu direla BAIn, hau da, hamasei urte arteko derrigorrezko hezkuntza ezarri duen eta, adierazi den bezala, DBHko titulurik gabe batxilergoko edo lanbide heziketako ikasketekin jarraitzeko

aukerarik ematen ez duena. Beraz, titulu hori eskatzen delako eutsi zaio 16 urtetik aurrera ikasten jarraitu ezin duten gazteen kopuru handi horri.

Nabarmendu behar da 2000. urtean Espainiako kopurua %30etik oso gertu zegoela, eta Europar Batasunean, berriz, %17koa zela. Europako kopurua zertxobait murriztu da, %17tik %15era, XXI. mendeko lehen zazpi urteetan, eta Espainiakoak %30-%31 inguruan iraun du.


Espainiako batez besteko portaera eskola uzteak autonomia erkidegoetan duen emaitza desberdinen ondorioa da. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, kopurua Europako batez bestekoaren antzekoa da ia. Asturiasen, Galizian, Gaztela eta Leonen eta Madrilan, eskola uztea %20-%25 inguru da. Talde horren ondotik, eskola uzte goiztiarra Espainiako batez bestekotik gertu, hau da, %25-%35 inguru duten erkidegoen multzo bat dago, hala nola Aragoi, Kantabria, Errioxa, Katalunia, Valentziako Erkidegoa eta Extremadura. Azkenik, Espainiako gainerako erkidegoetan %35etik gorakoa da, eta %50era ere iristen da, Zeutan eta Melillan. Nabarmenezkoa da erkidego batzuen eta besteen arteko portaera desberdin hori; izan ere, zalantzarik gabe, soilik hezkuntza sistemari eragiten dioten inguruabarrak baino askoz ere arrazoi konplexuagoen ondorioa da hori, hurrengo puntuan aztertzen saiatuko garen bezala.

Lehen adierazi bezala, BAIk

Helburua gazteek derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoan denbora gehiago irautea denez, matrikula tasak dira hezkuntza adierazle egokiena. Ikus ELGAren 2009ko Hezkuntzaren Panoramak adierazle horren inguruan ematen duen etsenplua eta arlo horren inguruan ematen duen bestelako ikuspegia. Kasu honetan, ELGAko 15-19 urte bitarteko batez besteko matrikula tasa %80 baino zertxobait gehiago da, eta Europar Batasuneko (ELGAko 19 herrialdeak) %85etik gertu dago. 15-19 urtekoen matrikula tasa ia %80 izan zen Espainian 2007an. 1995etik, eboluzioa desberdina izan da herrialdearen arabera, baina, Espainiaren kasuan, 1995etik 2007ra bitarteko aldakuntza Europar Batasuneko

V. IRUDIA. Graduazio tasen joerak bigarren hezkuntzako bigarren etapan (1995-2007)

Iturria: Education at a Glance OCDE. (2009ko Hezkuntza Panorama. Espainiako txostena)



eta ELGAko batez bestekoen oso antzekoa izan da (Ebaluazio Institutua, 2009^a).

Adierazle horrek eskolatzearen gaur egungo ikuspegia ematen du, eta, beraz, datoen urteetan, hezkuntza sistemetan matrikulatutako gazte horiek lan inkestetan elkarriketatzen dituztenean, zer aurkitzea espero den erakusten du. Nolanahi ere, Espainiako eskolatzearen gaur egungo kopuru horiek ez dute inola ere gutxitu behar arazo horren gaineko alerta eta kezka. Oso litekeena da jadanik hartutako neurri horiek oso lagungarriak izatea eskolatzeara areagotzeko, baina Espainiako eskola uzte goiztiarra hain da munta handikoa, non agintaritzen, hezkuntza erkidegoaren eta gizarte osoaren ahalegina beharko den.

Eskola uzteari buruzko informazioa osatzeko erabili beharreko beste adierazle bat, jadanik adierazi den bezala, hezkuntza estatistikak ematen duen goi mailako bigarren hezkuntzako tituluen tasa da. Alabaina, Europar Batasunak lan inkestak erabiltzen ditu, eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko tituluren bat badutela dioten 20 eta 24 urte bitarteko herritarren ehunekoa ematen du.

Eurostatek derrigorrezko hezkuntzaren ondokoa aztertzeke aplikatzen duen metodologian bereizi egiten dira INSNko 3c maila luzeak eta laburrak, baina ez herrialde guztietan; ELGAko tituludunen adierazleak, berriz, INSNko 3. mailako titulua duten gazte guztiak hartzen ditu

kontuan, ikasketen iraupena edozein dela ere. Gainera, ELGAK biztanle helduen titulu tasak baliatzen ditu, eta ez prestakuntza maila. Espainian, adierazle horrek %74ko tasa ematen du (17 urteko ohiko adinean) 2008an. Datu hori nabarmen desberdintzen da Eurostaten datuekin, horren arabera %60 baitira titulu hori duten 20-24 urte bitarteko herritarrek.

1995ean goi mailako bigarren hezkuntzako titulua zuten espainiarren tasa 15-16 puntu gutxiago zen (%62) ELGAko (%77) eta Europar Batasuneko (%78) tasa baino. 2007an, Espainian tituludunak %74 ziren, eta nabarmen gutxitu ziren aldeak ELGArekin (%82) eta EBrekin (%85), hurrenez hurren 8 eta 11 puntuetaraino (Ebaluazio Institutua, 2009^a). Hezkuntza adierazle horiek bide ematen dute zehazteko zer eragozpen dituen Europar Batasuneko eskola uztearen adierazleak hezkuntza neurriek gazteei hezkuntza sisteman jarraitzeke nola eragiten dieten jakiteko.

Nolanahi ere, adierazitako zehaztapen guztien ondoren, zalantzarik ez da Espainiako eskola uztea nabarmen handiagoa eta kezkarriagoa dela, baldin eta beste herrialde batzuetan neurketa prozedura berberekin lortutako emaitzekin alderatzen badugu. Ikus dezagun zer arrazoi dauden Espainian hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarra hain handia izateko.

Uzteko arrazoiak: sozialak, ekonomikoak,

Nabarmendu behar da 2000. urtean Espainiako kopurua %30etik oso gertu zegoela, eta Europar Batasunean, berriz, %17koa zela. Europako kopurua zertxobait murriztu da, %17tik %15era, XXI. mendeko lehen zazpi urteetan, eta Espainiakoak %30-%31 inguruan iraun du.


hezkuntzakoak.


Hezkuntza eta prestakuntzaren arloko Lisboako helburuak lortzeko aurrerapen txostenean (Europako Batzordea, 2008) aztertzen da zein hezkuntza eta gizarte inguruabarren ondorioz uzten dituzten Europako gazteek hezkuntza eta prestakuntza derrigorrezko ikasketak amaitzean edo derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoak amaitu aurretik. Eskola uzte goiztiarrean eragiten duten hezkuntza faktoreak bi inguruabar motatan bi daitezke.

Batetik, ikasleen hainbat inguruabar eta ezaugarri banako daude, hala nola ibilbide akademikoan izan dituzten ikasteko zailtasunak, osasun arazoak, eskolako hizkuntzaren ezaugarri eskasa eta autoestimutxikia, ikasketak baztertzeara eta horietan ez jarraitzea eragiten dutenak.

Bestalde, ikasleen hezkuntza ingurunearekin loturiko arrazoiak daude. Derrigorrezko eskolatzeara amaitutakoan hezkuntza edo prestakuntza uzten duten ikasle gehienek ez dute egokitzen jotzen ikaskuntza ingurunea, emaitza txarrak izaten dituzte eta irakasleekiko elkarrekin negatiboa. Halaber, nabarmena da eskola uzte goiztiarrak zerikusia duela hezkuntza edo jokabide arazoak dituzten ikasleek laguntza egokia jasotzearekin edo ez jasotzearekin. Eskolatzearen lehen urteetatik izandako esperientziak eta inguruabarrak, hala nola gurasoek eta irakasleek

VI. IRUDIA. Espainiako biztanleria enpleguduna (milakotan). 1993tik 2009ra
Iturria: INE. Biztanleria Aktiboaren Inkesta. Hirugarren hiruhilekoa.





Hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten gazteen ehunekoa, lanarekiko erlazioan. 2008.	
	Employed
EU-27	54.6
Belgium	49.5
Bulgaria	31.3
Czech Republic	38.8
Denmark	71.9
Germany	45.5
Estonia	68.7
Ireland	45.5
Greece	64.9
Spain	63.0
France	48.4
Italy	51.3
Cyprus	70.6
Latvia	60.0
Lithuania	47.9
Luxembourg	65.4
Hungary	35.8
Malta	77.5
Netherlands	75.6
Austria	60.4
Poland	43.7
Portugal	76.2
Romania	57.0
Slovenia	63.1
Slovakia	22.0
Finland	56.1
Sweden	59.4
United Kingdom	53.0
Croatia	48.0
MK*	23.6
Turkey	39.0
Iceland	84.9
Norway	79.1

beren seme-alaben eta ikasleen hezkuntzaren inguruan askorik ez espero izateak, gerora ondorio negatiboak izan ditzake haien errendimenduan, eta eskola goiz utzarazi. Orobat, ingurunearen barruan adierazten da zer ondore izan dezaketen lagunek eta eskolakideek eskola goiz uzteko arriskua duten gazteengan, hala eskola utzarazten dietelako nola inguruabar eta talde jakin batzuetan — zorritzarrez ez dira bakanak— eskola diziplina baztertzen dutelako.

Europako Batzordeak ere aipatzen ditu eskola utzarazten duten gizarte arrazoi batzuk. Beharbada, horietan eraginkorrena familiarren jarrera da. Familia batzuek, ez bakarrik zailtasun ekonomiko handienak dituztenak edo prestakuntza txikiak dutenak, ez dute onartzen hezkuntzaren balioa, eta gerta liteke beren seme-alabak zuzenean eta jakinaren gainean edo zeharka animatzea lana bilatzera, nahiz eta lan ezegonkor bat izan, hau da, gerta liteke ikasketak edo prestakuntza goiz uztera animatzea. Eskola utzarazteko beste arrazoi bat gizarte arazoak dituzten auzo inguruneak izan daitezke.

Nolanahi ere, Batzordeak nabarmendu du zenbait kulturatan maila sozioekonomiko txikia duten familiak are handinahiagoak direla seme-alaben hezkuntzari dagokionez maila sozioekonomiko handiagokoak baino. Inguruabar horrek azal ditzake, behintzat neurri batean, Espainiako familien eta komunitateen arteko zeinbait desberdintasun, aurrerago adieraziko dugun bezala. Horretan sakondu du ELGAren oraintsuko azterlan batek (2009c): *Itxura guztien kontra (Against the odds)* izenburupean, zenbait ikasleek, haien inguruabar eta ingurune soziokulturalak

kontuan hartuta espero zenaz bestela, 2006ko PISA zientzietan lortu dituzten emaitza onak aztertzen ditu.

Bestalde, kontuan hartu behar dira eskola goiz uztea lagundu ahal izan duten arrazoi ekonomikoak. 90eko hamarkadaren erdialdetik 2007ra bitartean Espainian izan den hazkunde ekonomiko izugarriarekin batera, lan eskaintza handia egin dute enpresaburu eta sektore jakin batzuek, eta, kasu askotan, eskaintza hori ez da izan oso zorrotza gazteen prestakuntzarekin. Horren ondorioz, hezkuntza formalean gustura ez zeuden gazteak indar handiz erakarri dituzte, eta, are derrigorrezko bigarren hezkuntza amaitu gabe ere, lana aurkitu dute 16 urteak bete ondoren.

Batez ere aipagarria da espainiarren eta EBko herritarren batez bestekoaren arteko langabezia portaera desberdina dela, sexuaren eta ikasketa mailaren arabera. Hala, ondoriozta daiteke Espainian prestakuntza txikiagoa duten pertsonak aukera gehiago izan dituztela lan merkatuan sartzeko Europar Batasuneko edo ELGAko haien homologoen baino; batez ere lehen mailako ikasketak eginak dituzten gizonezkoen kasuan, langabezia tasa nazioarteko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa da. 2007 arte Espainiako lan merkatuko sektore jakin batzuetan izan den lanpostu eskaintzak, aurretiazko kualifikazio profesionalik eskatu ez denez, nabarmenki erakarri ditu prestakuntza txikiagoa duten gazteak (Ebaluazio Institutua, 2009a).


Europar Batasuneko Batzordeak nabarmendu du hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten gazteen enplegu tasak oso desberdinak direla

Europar. Alemania (%45), Frantzia (%48) eta Belgika (%49) Europako gazte enplegudunen batez bestekotik behera daude; izan ere, Europar batez besteko hori %50etik gorakoa izan zen 2008an. Alabaina, Espainian %63koa da, eta, oro har, Iparraldeko herrialdeetan gaintitu egiten dira enplegu kopuru horiek. Hau da, lan merkatuak hezkuntza eta prestakuntza goiz utzi duten gazteei eskaintzen dizkien aukerak ikusita, badirudi badagoela harreman bat gazte horien artean eskola uztea handia izatearen eta enplegu tasa handiena izatearen artean (Europako Batzordea, 2009^a).

Eskola uzteko beste arrazoi sozioekonomiko batzuk ikasle etorkinei eragiten dietenak izan daitezke. Talde

VIII. IRUDIA. Hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarraren tasak biztanle etorkinen artean

Iturria: Europako Komunitateen Batzordea. Hezkuntza eta prestakuntzaren arloko Lisboako helburuak lortzeko aurrerapen txostena. 2009ko adierazleak eta erreferentzia puntuak.



Prestakuntza txikiagoa duten pertsonen aukera gehiago izan dituzte lana aurkitzeko Espainiako lan merkatuan, Europar Batasuneko edo ELGAko haien homologoei baino.

horren egoera ez da oso desberdina Espainian Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan gertatzen denarekin alderatuz. Lan Indarren Inkestaren arabera, eskola uztea oso arrunta da errialde guztietan nazionalak ez diren ikasleen artean.

Zenbait herrialdeetan, hala nola Espainian, Grezian eta Italian, eskola utzi dutenen %40tik gora ikasle etorkinak dira: Nolanahi ere, nahiz eta ikasle horien kopurua azkar eta bizikero handitu den azken urteetan, ez dirudi horrek azaltzen duenik eskola uzte

goiztiarra Espainian; izan ere, ikasle etorkinen ehunekoarekin konbinatutako eskola uzteari dagozkion tasen diferentziak ez du behar beste azaltzen autonomia erkidegoen artean sortzen diren diferentziak.

Lehenago adierazi dugun bezala, Espainian, aipaturiko arrazoez gain, beste hezkuntza inguruabar bat gertatzen da, gure inguruko herrialdeetan gertatzen ez dena: ikasle batzuek, nahi izanda ere, ezin dute ikasten jarraitu, DBHko titulua lortu ez dutelako (eskola porrota). DBH amaituta titulua lortzen duten ikasleen tasa %70 inguru da 16 urte arteko derrigorrezko irakaskuntza ezarri zenetik. Bigarren hezkuntzako graduatu titulua lortzen ez duten ikasleen %30ek zailtasun handiak

izan dituzte gaur arte Espainian prestatzen jarraitzeko. Egoera hori Espainiako hezkuntza sistemaren bereizgarria da, eta betekizun formal eta zorrotz horrek bereizten du gainerakoetatik.

Biztanleria Aktiboaren Inkestak, eskola uztea zenbatesteko erabiltzen den metodo berberarekin, erakusten du %85 edo %90 inguru direla 22 urterekin DBHko titulua edo antzeko bat lortua duten gazteak. Hau da, espainiar gazteen %15-%20k ez dute lortzen DBHko graduatu titulua 16 urterekin, baina adin hori gaindituta lortzen dute, edo hor diraute eta prestatzen jarraitzen dute, hezkuntza ez-formaleko eskaintzen bitartez edo beste ikasketa

batzuk egiteko sarbide proben bitartez, eta geroago lortzen dute titulu hori. Horrek erakusten du gutxienez gazteen ehuneko horrek bere prestakuntza hobetu nahi duela DBH (arrakastarik gabe) amaitu ondoren ere (Ebaluazio Institutua, 2009b).


Jadanik adierazi den bezala, Espainiako hezkuntza sistemaren inguruabar hori berezi samarra da, eta horrek bereizten gaitu beste sistema batzuekin, nahiz eta antzeko emaitzak izan ikasleen errendimenduan, baldin eta beste prozedura batzuekin neurtzen bada, hala nola 2000tik PISAren azterlanean egiten denarekin. 2006ko PISAren emaitzek adierazten digute beheko errendimendu mailetan dauden 15 urtetik beherako espainiar ikasleen ehunekoa (%20) ELGAko batez bestekoaren antzekoa dela; Espainiako autonomia erkidego dezentetan, ikasleek Europako haien homologoei dituzten emaitza berberak edo hobeak dituzte PISAren.


Alabaina, ikasturte errepikatzeak, eskola porrota eta eskola uztea, kasu horietan ere, oso handiak dira. Autonomia erkidego batzuetan, soilik ikasleen %9 (Gaztela eta Leon), %10 (Errioxa) eta %12 (Asturias, Aragoi, Kantabria) daude errendimendu mailarik txikienetan. Baina, PISA hain emaitza onak dituzten erkidego horietan, eskola porrota %20-%30 inguru da, eta eskola uztea, berriz, %20-%37 inguru.

Gainera, PISAk erakusten du ingurune sozial, ekonomiko eta kultural ahulenetako espainiar ikasleek, zeintzuen artean usuagoa baita eskola goiz uztea, ELGAko edo Europako herrialde

IX. IRUDIA. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan matrikulatutako atzerriar ikasleen ehunekoa. 2007-2008ko ikasturtea.

Iturria: Unibertsitatez besteko irakaskuntzen estatistika. Hezkuntza Ministerioa. 2007-2008ko.






gehienetako haien homologoek baino emaitza hobekak dituztela (Ebaluazio Institutua, 2007).

Ikasleen errendimenduaren banaketak agerian jartzen du ingurune sozial, ekonomiko eta kulturalak asko eragiten duela, baina are handiagoa dela ikasleak eta haren familiak duten jarreraren eta ikasleak ikasgelan irakasleekin egiten duen lanaren eragina. Badaude oso emaitza onak dituzten ingurune ahuleko ikasleak, 500 edo 550 puntuetatik gora daudenak (GIP, 2009).


Ondorioz, hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarrean hainbat faktorek eragiten dute, baina Espainian faktore erabakigarrienetako bat da ikasle ugarik errepikatzen dutela eta ez dutela DBHko titulua lortzen, nahiz eta errendimendu txikiko ikasleen Espainiako hezkuntza emaitzak, PISAk neurtutakoak, Estatu Batuetako, Erresuma Batuko, Herbehereetako eta ikasleek derrigorrezko hezkuntza amaitzean duten egoera akademikoa edozein dela ere ikasten jarraitzeko aukera duten beste herrialde batzuetako emaitzen antzekoak diren.



Espainiako erakundeek proposamenak hezkuntza eta prestakuntza uzte goiztiarri aurre egiteko.

Ordena kronologikoa, lehenik, Hezkuntza Ministerioak 2004an aurkeztu zituen *Eztabaidarako proposamenak* aipatu beharko lirateke. Hain zuzen ere, Kontseiluak erreferentzia puntua onartu eta soilik urtebete geroago aurkeztu zituen Ministerioak proposamen horiek, eta horien barruan oinarritzko gaitasunak eta laguntza eta errefortzurako eta hasierako kualifikazio profesionalerako programak sartu zituen, DBH ondo amaitzeko gaitasun handiak dituzten gazteentzako irtenbide gisa (Hezkuntza Ministerioak, 2004).

ELOk barne hartu zituen egindako proposamenetako



XII. IRUDIA. Ikasleek gaitasun zientifikoan duten errendimenduaren eta estatus sozioekonomiko eta kulturalaren arteko harremana. ELGA-PISA (2006) I turria: GIP 2009

asko, baina, batez ere, aipatu ditugun Unescoren, ELGAren eta EBren orientazioak Espainiako hezkuntza sisteman txertatzeko kezka irmoa. Legeak, hezkuntzaren arloko nazioarteko proposamen eta helburuen artean, kontuan hartu zituen bizitzan zeharreko hezkuntza, denontzako kalitateko hezkuntza eskaintzeko kezka gizarte kohesioa bermatzeko modu gisa, oinarritzko gaitasunak curriculumean formalki sartzea, hasierako kualifikazio profesionalerako programak ezartzea eta derrigorrezko ikasketen ondokoan malgutasuna, Espainiako hezkuntzak XXI. mendeko erronkekin bat egiteko aukera izan zezan.

Ikuspuntu zehatzago batetik, Legea eztabaitzeaz eta onartzeaz bat, 2010eko hezkuntza helburuak lortzeko lan talde bana jarri zen abian autonomia erkidegoetan, Hezkuntza Batzorde Orokorraren mendekoak denak. Lan talde horiek autonomia erkidegoen gogoeta partekatu bat eskaini izan dute oro har helburu guztiei buruz eta bereziki eskola uzteari buruz. Dagozkion txostenak eta proposamenak Hezkuntza Konferentziak onartu ditu eta 2006tik argitaratu dira (Ebaluazio Institutua, 2009^a). Lan horiei Ministerioak eta autonomia erkidegoek hasitako lurralde lankidetzako programa bateratuak gehitu zaizkie, hala nola Erreformatu, Orientazio eta Laguntza Programa, DBHko ikasleen errendimendua eta arrakasta hobetzeko asmoz (Hezkuntza Ministerioa, 2009^a).

Zehazkiago, Hezkuntza Konferentziak ahalegin berezia egin du eskola uztea aztertzeko eta horri aurre egiteko. Ahalegin hori burutzeko, neurri sorta garrantzitsu bat hartu zuen (Hezkuntza Ministerioa, 2009b), eta talde espezifiko bat sortu zuen, eskola uztearen jarraipena egiteko. Nabarmenen artean, honako hauek azpimarra daitezke:

- **Hasierako kualifikazio profesionalerako programen eskaintza handitzea**, halako moldeaz non bermatuko den ikasle bakar batek ere ez duela utziko derrigorrezko bigarren hezkuntza, horietako batean sartzeko aukera izan gabe.
- **Hezkuntza eskaintza areagotzea** lanbide heziketako erdi mailako prestakuntza zikloetako derrigorrezko irakaskuntzen ondokoetan.
- **Eskola uzte goiztiarraren poltsa gehiago sortzen diren taldeetan eragiteko plan bereziak.**
 - Erreformatu programak eta ekintzak sustatzea, espezifiki derrigorrezko bigarren hezkuntzako titulua lortzen duten ikasleen kopurua handitzeko.
 - Administrazioen eta ikasleen guraso elkartearen arteko lankidetzak sustatzea, eskola uzte goiztiarrari aurre egiteko jarduerak garatzeko.
 - Ikaskuntza ez-formala aintzatetsi dadila sustatzea.

- Oinarritzko gaitasunen eskuratzeko mailari buruzko txosten bat ezartzea.

- Prestakuntza eta enplegua bateragarri egiteko neurriak hartzea.

Estatuko Eskola Kontseiluak zorrotz eztabaidatu eta landu ditu ebaluazio azterlan nazionaletatik eta nazioartekoetatik datozen informazioak, adierazleen sistemak eta Europako Batzordearen 2010eko hezkuntza helburuak lortzeko aurrerapen txostena. Lan horren emaitza dira proposamen hauek (EEE, 2009):

Derrigorrezko hezkuntzan:

- Hezkuntza etapen arteko trantsizioa laguntzea. Eskola familekin koordinatuta egotea.

- Zailtasunak haur eta lehen hezkuntzatik hautematea: Laguntza eta erreformatu goiztiarrak.

- Behar beste hasierako kualifikazio profesionalerako programa eskaintzea ikasketxe guztietan.

- Hezkuntza sistemara berandu sartu diren ikasleen eskolatzea erabatekoa eta orekatua izan dadin laguntzea.

Derrigorrezko bigarren hezkuntzaren ondokoan:

- Eskola uzte goiztiarren aurkako plan estrategikoa bultzatzea.

- Ikasle gehiago matrikulatzea erdi mailako eta goi mailako prestakuntza profesionalen.

- Derrigorrezko irakaskuntzen ondokoan hezkuntza eskaintza malgutea.

- Ikasketak eta lana bateragarri egitea.

Europar Batasunak honako ekimen hauek aipatzen ditu Hezkuntza eta prestakuntzaren arloko helburuak lortzeko aurrerapen txostena. 2008ko adierazleak eta erreferentzia puntuak txostenean, eskola uztea murrizteko ekimenen artean:

- Ordutegi malgutasuna, gela txikiak eta banan-banako hezkuntza laguntzarako planak.

- Karga akademiko txikiagoa duten prestakuntza profesionalerako ikastaroak sartzeko.

- Hezkuntza bide alternatiboak, ohiko eskoletan ondo sentitzen ez diren ikasleentzat.
- Derrigorrezko eskolatzea edo goi mailako bigarren hezkuntzarako eskubide unibertsala luzatzea.
- Prestakuntza profesionala sustatzea. Erdi mailako prestakuntza profesionalen parte-hartze handia duten herrialdeek eskola uztearen tasa txikiagoa dute.
- Talde malguak eta zuzentasuna goi mailako bigarren hezkuntzan.

Gobernuak prestatu duen Ekonomia Iraunkorraren Lege Proiektuak (Presidentetza Ministerioa, 2010) neurri multzo bat dakar VIII. kapituluan, eta horien artean honako hauek nabarmendu behar dira:

- Hasierako kualifikazio profesionalerako programetan sartu ahalko dira derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren ikasturtea amaitu duten edo 15 urtetik gora dituzten ikasleek.
- Erdi mailako prestakuntza zikloetara sartzeko, baldintza hauetako bat bete beharko da:
 - Derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu titulua izatea.
 - Hasierako kualifikazio profesionalerako programa bat gainditua izatea.
 - Erdi mailako zikloetara sartzeko prestakuntza ikastaro espezifiko bat gainditua izatea.
 - Sartzeko proba bat gainditua izatea.
- Erdi mailako prestakuntza zikloetara sartu ahal izateko ikasturtearen nahiz proben ardatza ziklo horiek egiteko ezinbestekoak diren derrigorrezko bigarren hezkuntzako oinarritzko gaitasunak izango dira.

Aipaturiko neurri multzoari Hezkuntza ministroak 2009. urtearen hasieran proposatu zuen itunean ezarritakoak gehitu behar zaizkio (azkenean bertan behera geratu zen itun hori). Ituneko helburu sentikorrek Hezkuntza Ministerioaren 2010-2011ko Ekintza Planera aldatu dira. Aurkeztutako dokumentuan, besteak beste honako hauek jasotzen dira:

7. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako 4. maila orientatzailea izango da; derrigorrezko ikasketen ondokoetarako bi profil izango dira, eta bi aukera hauekin antolatuko da:

- Ikasketa orokorretara bideratutako aukera bat (batxilergoa).
- Eta ikasketa profesionaletara bideratutako aukera bat (erdi mailako prestakuntza profesionaleko prestakuntza zikloak)

8. Bi aukeretako bat amaitzean, ikasleek graduatu titulua lortuko dute; horri esker, lanbide heziketako erdi mailako prestakuntza zikloetan edo batxilergoan ikasten jarraitu ahalko dute.

9. Derrigorrezko bigarren hezkuntzako hirugarren maila amaitzean adierazitako aukeretako bat ere egiteko moduan ez daudenek aukera izango dute hirugarren maila errepikatzeko, dagozkion errefortzu neurriekin, edo curriculum dibertsifikazioko programa bat edo hasierako kualifikazio profesionalerako programa bat egiteko.

10. Hasierako kualifikazio profesionalerako programek bi urte iraungo dute, eta era honetan diseinatuko dira:

a. Derrigorrezko eta borondatezko moduluak gainditzen dituzten ikasleek DBHko graduatu titulua lortuko dute.

b.1. mailako kualifikazio profesional bati loturiko moduluak eta prestakuntza modulu osagarriak gainditzen dituzten ikasleek erdi mailako prestakuntza ziklo bat egin ahalko dute.

c. Kualifikazio profesional bati loturiko moduluak gainditzen dituzten ikasleek 1. mailako profesionaltasun ziurtagiria lortuko dute.

11. Hasierako kualifikazio profesionalerako programak eskaintzeko eta garatzeko modalitateen oinarri bateratuak zehaztea autonomia erkidego guztietan.

12. Neurri orientatibo, akademiko eta profesionalak indartzea DBHko hirugarren ikasturtean, prestakuntzako aukerei eta laneratzeko aukerei buruzko informazio zabala duten ikasleentzat, beren gaitasun eta interesei ondoen lotzen zaien modalitatea edo bidea hautatu ahal izan dezaten.

13. Ministerioak eta autonomia erkidegoek Hezkuntzaren Sektore Konferentzian adostutako planekin jarraitzea, eskola arrakasta sustatzeko eta eskola uzte goiztiarraren aurka borrokatzeko.


Eskola uztea borrokatzeko erakunde

proposamen horietan jasotako hezkuntza neurri nagusiek bi helburu nagusi hauekin dute zerikusia: Lehenik, DBHko ikasleen errendimendua eta arrakasta hobetu nahia; eta, bigarrenik, DBH zailtasunekin amaitzen duten ikasle guztiei erraztasunak ematea hasierako kualifikazio profesionalerako programak egiteko, eta, horiek bukatutakoan, erdi mailako prestakuntza zikloak eta batxilergoa egiteko.

Aurreproiektuan edo itunean jasotako proposamenak betetzen badira, arrazoizkoa dirudi espero izatea murriztu egingo dela Espainiako eskola uzte goiztiarraren proportzioa, DBH arrakastaz amaitzen ez zuten ikasleek orain arte ikasten eta prestatzen jarraitzeko modurik ez izateari egotzi beharrekoa. Muga hori gainditzen bada, adierazle honetan sartutako ikasleen %15 inguruk lortuko dute onura.

Nolanahi ere, hori hala bada, gure inguruabarrak Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan komunak diren inguruabarretara hurbilduko dira, eta, segur aski, eskola uzteko beste arrazoi batzuei egin beharko diegu aurre, gainerako herrialdeei ere eragiten dietenei, irmoki lan egiteko 2020rako erreferentzia puntua lortzeko, zein eskola uzte goiztiarra %10etik behera murriztea baita oraindik ere. Edo, hobeto, berriro ere helburu eta erreferentzia puntu hau modu positiboan formulatzen uzten badidazue, gure gazteen %90ek derrigorrezko hezkuntza bukatutakoan beren hezkuntza eta prestakuntzarekin jarrai dezaten lortzea, eta, hala, benetan laguntzea jakintzaren gizartea eta herritarren Europa eratzen.

Erakunde proposamenen helburua da DBHko ikasle-
leen errendimendua eta
arrakasta hobetzea eta
hasierako kualifikazio
profesionalerako progra-
metara sartzeko errazta-
sunak ematea titulua lor-
tzeko zailtasunak izan
dituzten ikasleei.



LANBIDE- PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK NAFARROAN

Jesús M^a Arbea Polite

Ikastetxeen Plangintza eta
Garapenerako Atala

LOEk ezartzen eta definitzen ditu Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortu ez duten gazteentzako Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak (HLPP). Programa hauek bokazio bikoitzeko trebakuntza-eskaintzak dira; batetik, hezkuntza-sisteman berriro sartu nahi da eta bestetik, baina lan-sisteman ere. Beraz, bere xedea da hamazazpi urtetik gorako ikasleek edo, salbuespenetan, hamabost urtetik gorakoek

- Lanbide-prestakuntzako Katalogo Nazionaleko lehenengo mailari dagozkion eskumen profesionalak lortzea
- Dituzten oinarrizko eskumenak zabaltzea.

Horrela, bada, bide hirukoitza ezartzen da ikasleen esku, hezkuntza utzi ez dezaten: Eskumen profesionalak aitortuta lanerako irtenbide homologatua, erdi mailako prestakuntza-zikloetarako sarbide-proba gainditzeko aukera edo Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua lortzeko aukera.

Programa hauetako esker, trebakuntza mota batetik bestera igaro daiteke eta baita trebakuntzatik lanera ere; horren bidez, hezkuntza-sistemako malgutasuna hazi egiten da bizitzan zeharreko ikaskuntza-ren alorrean, behar eta interes pertsonaletara egokitutako trebakuntza-bideak konfiguraturik. Beraz, ikasle guztiek eskola-arrakasta izateko neurririk garrantzitsuenetakoa da.



dHLP motak

Sailkapen orok gehiegi orokortzeko arriskua duen arren, HLPPrako ikasle hautagaiak hiru motakoak direla esan daiteke:

Eskolak porrota porrot pertsonal bezala hartzen duten gazteak, eskolako trebakuntzaren eta beraien trebakuntza jarraitzearen balorazio positiboa izan arren, nahiz eta jarraipen hau profesionalizatzailerak izan.

Eskolarekiko jarrera negatiboa duten gazteak, trebakuntzako ekintzekiko uzkuradura eta gaitzusteak dutenak, hauek lanbideren batera orientabide garbia izan arren.

Eskola eta lan munduarekiko gaitzusteak dutenak, etorkizunerako gutxi definitutako asmoekin eta lanerako motibaziorik gabe.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak ezin dira hartu soilik hezkuntza-babes berezia behar duten ikasleentzako neurri bezala, baina aukera egokia dira eskola porrota jasandako gazteek hezkuntza-sisteman jarraitzeko. Nafarroan Programa hauetako mota hauek daude, ikaslearen hezkuntza arloko, arlo pertsonaleko eta gizarte arloko aldagaiak artatu asmoz:

- Oinarrizko HLP.

- Lanbide tailerrak, antolatzeke bi eredu-rekin:

- Ohiko Lanbide Lantegia.

- Egokitutako Lanbide Lantegia.

- HLP Berezia.

Oinarrizko HLP DBHn eskolatutako gazteentzako da, laneko munduan sartzeko lehenengo mailako kualifikazioaren berezko eskumen profesionalak hartzeaz gain, DBHko graduatu titulua lortzeko borondatezko moduluak egiteko hitza ematen dute.

Ohiko Lanbide Lantegia lan munduan sartzeko lehenengo mailako kualifikazioaren lanbide eskumenak lortu nahi dituzten gazteentzako da, batez ere. Era berean, ikasleek beraien oinarrizko eskumenak zabaltzen dituzte, gizartean eta lan munduan errazago sartzeko, eta, dagokionean, beste mota bateko ikasketekin jarraitzeko.

Egokitutako Lanbide Lantegia jarrerazko nahasketa larriak edota eskolara/lanera egokitzeko zailtasun nabarmenak dituzten gazteentzako da, gizartetik baztertzeko arriskua dutenentzat, lan munduan sartzeko lehenengo mailako kualifikazioko lan munduko berezko eskumenak lortu nahi dituztenentzat. Era berean, ikasleek beraien oinarrizko eskumenak zabaltzen dituzte, gizartean eta lan munduan erra-

zago sartzeko, eta, dagokionean, beste mota bateko ikasketekin jarraitzeko.

HLP Berezia behin-behineko edo betiko heziketa behar bereziekiko gazteentzako da, beraien ezintasunaren ondorioz hezkuntza-babes eta arreta bereziak behar dituztenentzat, beraien autonomia pertsonal eta soziala dela eta, lanpostu batzuetan sartzeko aukerak dituztenentzat.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetan hiru motako moduluak daude:

- Derrigorrezko lanbide-moduluak. Lanbide-prestakuntzako Katalogo Nazionaleko lehenengo mailako kualifikazioei dagozkien eskumen unitateak dira.

- Oinarrizko lanbide-moduluak. Oinarrizko eskumen orokorrak zabaltzen dituzten eta hezkuntza-sistematik lan-mundurako trantsizioa mesedetzen duten lanbide modulu orokorrak dira.

- Borondatezko moduluak. Lanbide modulu orokor hauek DBHko graduatua lortzeko dira.

Modulu hauek HLP mota bakoitzean honela antolatzen dira:

Oinarrizko HLP

1. Lanbide-moduluak.

Lanbide-modulu bat edo gehiago, lehenengo mailako lanbide-kualifikazioei dagozkien unitateei lotuta. Asteaz hamabost ordu.

Enpresetan praktika, ez dira derrigorrezkoak. Programaren azken hiru hilekoan garatzen dira, 150 ordu.

2. Oinarrizko/Borondatezko moduluak.

DBHko materiarekin lotutako edukiak dituzte. Modulu hauek asteaz hamabost ordu izaten dira. Eredu hauetan garatzen dira moduluak:

- Komunikazioaren arloa. Asteaz lau ordu.
- Gizarte arloa. Asteaz bi ordu.

- Arlo zientifiko-teknologikoa. Astean sei ordu.
- Lanerako eta enplegurako orientazioa. Astean ordubete.
- Konfigurazio askeko modulu bat edo bi. Astean bi ordu. Aukeratzeko:
 - Taldeko tutoretza, batez ere, eta
 - Gaztelania bigarren hizkuntza bezala.
 - Jarduera fisikoa eta kirola.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko laguntza.
- Osasunerako hezkuntzarako laguntza.

HLPP Lanbide-lantegia (ohikoa eta egokitu-tua)

1. Lanbide-moduluak.

Lanbide-modulu bat edo gehiago, lehenengo mailako lanbide-kualifikazioei dagozkien eskumen-unitateei lotuta. Astean hamabost ordu izaten dira ohiko HLPP lanbide-lantegiaren kasuan eta hemezortzi egokitutako HLPP lanbide-lantegiarenean.

Enpresetan praktikak, ez dira derrigorrezkoak. Programaren azken hiruhilekoan garatzen dira eta 150-200 ordu irauten dute.

2. Oinarrizko moduluak

DBH 1 eta 2ko gaiekin eta programako lanbide-moduluaren beharrekin lotutako edukia zuten dute. Modulu hauek asteazpi ordu eta erditik hamabost ordura arte izaten dituzte. Eremu hauetan garatzen dira moduluak:

Komunikazioaren arloa. Astean bi-lau ordu.

Gizarte arloa. Astean ordubete edo bi.

Arlo zientifiko-teknologikoa. Astean hiru-sei ordu.

Lanerako eta enplegurako orientazioa. Astean hiru ordu laurden eta ordu eta erdi artean.

Konfigurazio askeko modulu bat edo bi. Astean hiru ordu laurden eta ordu eta erdi artean. Aukeratzeko:

Taldeko tutoretza, batez ere, eta

Gaztelania bigarren hizkuntza bezala.

Jarduera fisikoa eta kirola.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko laguntza.

Osasunerako hezkuntzarako laguntza.




LHPP berezia

1. Lanbide-moduluak.

Lanbide-modulu bat edo gehiago, lehenengo mailako lanbide-kualifikazioei dagozkien eskumen-unitateei lotuta. Ikasleen behar berezietara egokitutako lanbide-

moduluak eduki ditzakete. Astean hamabost ordu.

Enpresetan praktikak, ez dira derrigorrezkoak. Programaren azken hiruhilekoan garatzen dira eta 150-200 ordu irauten dute.



2. Oinarritzako moduluak

Modulu hauen edukia Lehen Hezkuntzako eta DBHko gaiekin lotuta daude, programako lanbide-moduluen garapeneren ondoriozko beharrek eta ikasleen berariazko beharrei egokitutako beste edukiekin. Asteaz hamabost ordu dira. Oinarritzako modulu hauek eremu hauetan garatzen dira:

Komunikazioaren arloa. Asteaz lau ordu.

Gizarte arloa. Asteaz hiru ordu.

Arlo zientifiko-teknologikoa. Asteaz bost ordu.

Lanerako eta enplegurako orientazioa. Asteaz ordubete.

Konfigurazio askeko modulu bat edo bi. Asteaz bi ordu, aukeratzeko:

Taldeko tutoretza, batez ere, eta

Gaztelania bigarren hizkuntza bezala.

Jarduera fisikoa eta kirola.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzeko laguntza.

Osasunerako hezkuntzarako laguntza.

Ikasleak HLPPko derrigorrezko moduluak gaitututakoan (lanbide-moduluak eta oinarritzaioak), ziurtagiri akademikoa jasotzen du eta eskatzen dutenek lan administrazioaren profesionaltasun ziurtagiria jasotzeko eskubidea dute.

Ikasleak borondatezko moduluak ere gaitutut baditu, DBHko graduatu titulua lortzen du.

Programa hauen historia

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak bere garaian LOGSEk garatutako Gizarte Bermeko Programen ordezkioak dira (Lanbide Hastapeneko Programak - LHP- Nafarroan).

Hala ere, Nafarroan derrigorrezko ikasketetako xedeak lortzen ez dituzten gazteentzako arreta instituzionala 2006a baino lehenagokoa da, 1982az geroztik baitago. Urte horretan Nafarroako Foru Aldundiak

Nafarroako Lanbide Lantegiak sortu baitzituen. Programa horien oinarritzako edukia arautu gabeko lanbide-trebakuntzak eratu zuen. Nafarroako Lanbide Lantegiak hasitako ikasketak amaitu gabe eskola-sistema uzten zuten gazteentzako ziren, OHOk, lehen mailako LHko edo Batxilergoko ikasleentzat, urte horietan lan munduan sartzeko zailtasun handiak zituzten gazteentzat eta delituak egiten edota estupefazianteak kontsumitzen hasteko arrisku handia zutenentzat.

Ekimen honen gizarte eta hezkuntza arloko asebetetzea ikusita, 1985ean Lanbide Lantegiak finkatu egin ziren eta ordutik 1996ra arte, eskaintza apur bat zabaldua, gazte talde hau artatzeko lan garrantzitsua egin dute, bestela kalean eta lanik gabe geratzeko baitziren, seguru asko. Ondoren Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrerako Legeak (LOGSE) Nafarroako esperientzia oinarri hartu eta Gizarte Bermek Programak garatu zituen eta 1996an Lanbide Lantegiak Lege honetara egokitu eta eskaintza zabaldu egin zen Foru lurralde osora. Nafarroan Lanbide Hastapeneko Programak (LHP) izenarekin garatu ziren.

Nafarroak esperientzia aberats eta luzea du derrigorrezko ikasketetan emaitza egokiak lortzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako hezkuntza-programak planifikatzen eta garatzen; horren bidez eskola goiz uztea saihesten da, lan mundura errazago sartu daitezke eta ondorengo prestakuntzarako eta kualifikaziorako ateak irekita geratzen zaizkie.

Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programen xedea, 80ko hamarkadako lehenengo Lanbide Lantegiena ez bezala, ez da "lan nahiko sinpleak egiteko" gutxienezko kualifikazioarekin lan mundura igarotzea. HLPPren xedea besterik da, LHPEk bezala, termino akademikoetan porrot egindako eskolatzea berreskuratu nahi dute, nahiz eta aldea egon Oinarritzako Motan DBHko Graduatua lortu baitaiteke.

LHPPren egungo eskaintza

LHPPren egungo eskaintzan 16 lanbide familia sartzen dira: Administrazioa eta kudeaketa - Nekazaritza - Eraikuntza eta obra zibila - Elektrizitatea eta elektronika

- Fabrikazio mekanikoa - Ostalaritza eta turismoa - Irudi pertsonala - Elikagaien
- industriak - Informatika eta komunikazioak - Instalazioa eta mantentze lanak - Zura, altzariak eta kortxoak - Osasungintza - Zerbitzu soziokulturalak eta erkidegoarentzakoak - Garraioa eta ibilgailuen mantentze lanak. 29 profil profesional eskaintzen dira eta Lanbide Heziketako Zentroetan, Bigarren Hezkuntzako Institutuetan eta irabaz asmorik gabeko erakundetan garatzen dira, gazteak lan munduan eta gizarteaz sartzen esperientzia izanez gero. Gau egun 1.000 ikasle baino gehiago dabilta programa hauetan (1.089).

(Ikus 2010/2011 ikastaroan eskaintzen diren Programak)

Etorkizuna

Azkenik, duela gutxi onartutako Ekonomia iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legeak aldaketa garrantzitsuak sartu ditu Programa hauetan; izan ere, azken xedapenetako hogeita laugarrenean LOEko 41. artikulua idazketa berria dakar eta Programa hauetan hamabost urtez gorako ikasleak sartu ahal izango dira, Programa hasi zen urteko abenduaren 31a baino lehen betez gero, eta, LHPP bateko derrigorrezko moduluak gaitutuz gero, erdi mailako prestakuntza zikloetan sartu ahal izango dira. Programa hauetako ikasleak adinean egondako aldaketa Ekonomia iraunkorrari buruzko Legearen osagarria den martxoaren 11ko 4/2011 Lege Organikoko bigarren artikuluan dator.

GAITASUNAK EBALUATZEKO ETA ZIURTATZEKO PROZESUAK

Bizitza osoko
trebakuntzaren
oinarrizko elementu

Pedro González Felipe

Lanbide Heziketaren eta
Unibertsitateen Zuzendari
Nagusia

R 1 3 5
2 4

Ekoizpenaren, hedapenaren eta jakintzaren balioaren bilakaerak eta bilakera horren ondorioz lortutako ezagutzak egoera ekonomiko berri batean jartzeaz gain, batez ere gizarte egoera batean ere jarri gaitu. Egiazta daitekeen egitatea da hori. Gaur egun pentsaezina da geroz eta luzeago bihurtzen ari den laneko bizitzari aurre egitea gure hasierako trebakuntzan lortutako ezagutzak eta gaitasunak izanik. Ezagutzaren bilakera azkarrak eta berehala beste berri batez ordezkatzeko gure gaitasun profesionalak etengabe egokitzeko, eskuratzeko eta hobetzeko ahalegina egitera behartzen gaitu.

Horregatik, geroz eta beharrezkoagoa da jabetzea gure laneko garapena eta garapen pertsonala bizitza osoan zehar ikastearen kontzeptuarekin lotuta daudela, hain justu ere, gure gaitasunak baloratzearekin eta gaitasun horiek geroz eta globalizatuagoa eta zorrotzagoa den merkatuaren premia aldakorretara egokitzen ahalegintzearekin.

Kontzeptu orokor horiek ikaskuntza mota guztietara aplikatzekotan, funtsezko balioa hartzen dute Lanbide Heziketaren alorrean, izan ere, horren egiteko nagusia ikasleak laneko egi-

teko jakinak burutu ahal izateko behar diren gaitasunez hornitzea da. "Kualifikazioa" kontzeptu ezaguna prestatuntzen sistema berriko funtsezko giltza da eta horretan oinarritzen da 5/2002 Legea, Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren ingurukoa. Hori dela eta, Europako Batzordeak zein Parlamentuak, Kopenhageko Adierazpena (2002) oinarri hartuta, Lanbide Heziketa jarduera instituzionalen helburu nagusi bihurtu dute, esate baterako, kualifikazio sistemak garatzean, bizitza osoko etengabeko ikaskuntzan edo, langileek ziurtatutako lan esperientzia oinarri hartuta, gaitasunen ebaluazio ofizialaren prozesuan.

Azken gai hori, laneko esperientziaren bidez lortutako gaitasun profesionalen ebaluazio prozesua, da hain zuzen ere Lanbide Heziketaren sistema berria ezartzearen alderdi interesgarrienetako bat gizartearentzat. Halere, horixe bera da prozesua abiarazi behar duten agenteentzat (hezkuntza eta lan administrazioak, agente ekonomikoak eta sozialak, langileak, e.a.) gauzarik zailena. Koordinatzeko eta bat etortzeko zailtasunen aurretik aipatutako agenteen hedapen kanpaina bat dago. Kanpaina horri esker, jendearen artean itxaropen handia sortu da titulazio ofi-

ziala lortzeko aukerari dagokionez, hau da, gaitasunen edozein mailatik aurrera lortu ahal izatea eta eredu zehazteko eta ezartzeko prozesuko zenbait alditan hainbat nahigabe eragin duen erraztasunarekin, hala izango ez bada ere.

Hasierako gogoeta horiek aparte utzita, Espainiako biztanleria aktiboaren 2008ko inkestak agerian jartzen du datu kezka-garri bat: estatuko biztanleria aktiboaren % 60k ez dauka egiten duen lanarekin loturiko titulaziorik. Hortaz, lan egiteko adinean dauden estatuko biztanleen erdiak baino gehiagok, laneratu aurretik, ez du ikasi hezkuntza sisteman.

Kasuan kasuko titulazioa ez izateak ez du esan nahi langileek ez dutenik gaitasun profesionalik haien lana behar bezala burutzeko, baizik eta trebetasun edo ezagutza horiek laneko esperientziaren edo ikaskuntza egoera ez formalen bidez lortu dituztela.

2000n Lisboan egin zen Europako Kontseiluan esan zuten Europar Lanbide Heziketa indartzea funtsezkoa dela ezagutzaren gizartea sustatzeko bidean aurrera egiteko Europar Batasunaren garapen sozioekonomikoaren tresna gisa. Etengabeko hezkuntzaren inguruan Europako Kontseiluak emandako Ebazpenaren arabera, lehentasuna eman behar zaio herrialdeen eta sektoreen artean ikaskuntza formal, ez formal edo informaleen bidez lortutako kualifikazioak onartzeari eta baliozkotzat jotzeari eta, hala, ikasteko modu horien arteko oztopoak kentzeko eskatuko da.

Horren inguruan, laneko esperientziaren bidez lortutako gaitasun profesionalak onartzeari buruzko 1224/2009 Errege Dekretuak honako hau adierazten du sarrian:

"Hezkuntzari eta lanbide heziketari mesede egiteko eta 2000ko Lisboako goi bilerako helburuak lortzen laguntzeko neurrietako bat laneko esperientziaren edo heziketa ez formalen bidez lortutako gaitasun profesionalen onarpena sustatzea da. Neurri hori Lisboakoaren ondorengo Europar Batasunaren goi bileretan zabaldu eta berretsi egin da. Horren guztiaren helburuak hauek dira: herritarren enplegarritasuna eta mugikortasuna erraztea, bizitza osoko ikaskuntza sustatzea eta gizartearen kohesioari mesede egitea, batez ere onartutako kualifikazioarik ez duten taldeena.

Gaitasunak ebaluatzen eta ziurtatzeko prozedura abian jartzeko arrazoiak askotarikoak dira: **lanekoetatik** hasi

(enplegarritasunaren igoera, lan merkatuaren gardentasun handiagoa, gogobetetasuna eta motibazio pertsonala) eta **estrategikoak eta soziopolitikoak** direnetera arte (heziketa politika emankorren ildoan arabera egitea, giza baliabideen kudeaketa egokitzea, Europako politikekin bat egitea, e.a.).

Prozesuak abantaila nabariak ditu pertsonentzat, enpresentzat eta gizarte osoarentzat. Hala eta guztiz ere, zalantza eta arazo batzuk daude horren inguruan, behar bezala gainditu behar direnak; hala egin ezean, zalantza eta arazo horiek estatuko lanbide heziketaren sistemaren kalitatea eta balioa arriskuan jar ditzakete. Laster hamaika galderari erantzun argia eman beharko zaie; esate baterako: Nola ebaluatuko da gaitasuna? Nola ebaluatuko da irakatsi ez dena? Nolako izango da prozesua? Nork gauzatuko du prozesua? Laneko eta hezkuntzako administrazioen artean partekatutako gaitasunak bermatuko al du prozesuaren zorrotasuna? Nola jokatu beharko genuke LHko tituluek gizartean duten balioa zalantzan jar ez dadin? Titulu bat lortzea ez al da izango errazegia? Zein izango da agente sozialen egitekoa kontu honetan?

Zalantza horiek guztiek eragotzi dute estatuan gaitasunak ebaluatzen eta ziurtatzeko prozedura ezartzea. 1224/2009 Errege Dekretua egitea prozesu luzea eta neketsua izan da, baina hori estatuan zein erkidegoetan deialdietan zehazteak zailtasun ugari sortu ditu, batzuetan gaindiezinak direnak. 2010erako Lan eta Hezkuntza Ministerioaren artean deialdia egiteko huts egin zuen ahalegina gogoratu besterik ez da egin behar. Haur Hezkuntzako eta Mendetasunaren arloko 8000 plaza abiarazten ahalegindu ziren baina abiarazi aurretik bertan behera geratu zen, bi espezialitate horiek barne hartzeko beharizan handia badago ere. Espezialitate horiek estatuan milaka pertsona lanik gabe utz ditzaketen legeak aplikatzearen mende daude; pertsona horiek laneko esperientzia egiaztatua dute, ez ordea eskatzen diren titulazioak.

Hala ere, Nafarroan, Hezkuntza Departamentuaren eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren artean, Lan arloko Zuzendaritza Nagusiaren bidez eta Nafarroako lanbide heziketako kontseiluaren barruan, egindako lanaren emaitza izan da adostutako prozedura bat zehaztu ahal izatea; horri esker, 2011rako deialdia egingo da, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren 397/2010 ebazpenean jaso zen bezalaxe. Ebazpen horretan, haur hezkuntzaren eta mendetasunaren alorrez gain, osasun larrialdien, soldaduraren eta sukaldaritza-

ren espezialitateetako gaitasunak ebaluatzen eta ziurtatzeko prozesuaren deialdia egin da.

Hezkuntza Departamentuak esperientzia handia du dagoeneko mota horretako prozesuetan, izan ere, Foru Erkidegoko Lanbide Heziketako ikastetxeek hasiera-hasieratik eskaini izan dizkiete inguruko enpresei enpresok garatzeko eta sendotzeko behar den trebakuntza eta laguntza. Harreman garrantzitsu hori izan da Nafarroaren garapenerako faktore estrategiko garrantzitsuenetako bat; gure enpresa handienetako askok Nafarroara jo dute gure Lanbide Heziketako sistemak trebatzeko ematen duen aukeragatik.

Gainera, azken 10 urteetan, prestakuntza arautua eta murriztua (arratsaldeetan) eskaini dugu gure enpresek gehien eskatzen dituzten titulu batzuetan eta lehenak izan gara gaitasunaren ebaluazio eta ziurtapen prozesu baten esperientzia pilotua abiarazten larrialdietako garraio sanitariorekin titulurako. Horretarako, sektoreko enpresen beharizanak eta zerbitzu hori eskaintzen duten irabazi asmorik gabeko erakundeak bateratu ditugu. Lehen aldiz burutu zen esperientzia arrakastatsua izan zen.

Hortaz, esperientziaren bitartez lortutako gaitasunaren ebaluazio eta ziurtapen prozesuek ingurune sozioekonomikoaren eta lanbide heziketako sistemen beharizanaren arteko doikuntza tresna indartsua izan behar dute. Hori lortzeko, lortutako ezagutzak baloratu behar dira, enpresen ildo estrategikoak garatzeko behar diren trebakuntza arloak zeintzuk diren jakin behar da eta langile guztiei trebakuntza/ekintza bide bat eskaini behar zaie bizitza osoan zehar trebatzeko jarraitu beharreko bidean lagunduko diena. Horrek guztiak behar besteko zorrotasuna eta kalitatea izan behar du, gizarteari eta pertsonen balio izan diezaien, eta testuinguru, enpresa edo egoera bakoitzera egokituko da, giltza eskura izaten denean bezala, horrek ekarriko duelako hazteko ditugun aukerak hobetean, ez bakarrik pertsona moduan eta lanean, baita gizartean ere.

1 Kopenhageko Adierazpena, hezkuntzaren eta lanbide irakaskuntzaren alorrean Europako lankidetzak hobetzeari buruzkoa (2002)

2 2002/C 163/01 Ebazpena 2002-07-09ko Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala

3 1224/2009 Errege Dekretua, uztailaren 17koa, laneko esperientziaren bidez lortutako gaitasun profesionalak onartzeari buruzkoa

IKASKETA BIZITZAN ZEHAR HELDUEN PRESTAKUNTZA

José Luis Muñoz

Helduen Hezkuntzako Atala



Europar Batasunak ikaskuntza iraunkorra honela definitzen du: "bizitzan zehar eza-gutzak, eskumenak eta gaitasunak ikuspuntu pertsonaletik, zibiletik, sozialetik edo lanarekin lotutakotik hobetzeko egin den ikasketa guztia". Inoiz ez da beranduegi ikasteko 2006ko Batzordearen komunikazioan, garrantzi berezia izan zuen helduen ikasketak, ikaskuntza iraunkorrerako eta laneratze-gaitasunak bereganatuz laneratzeari, lan-merkatuaren mugikortasunari eta gizarteratzeari laguntzen dielako.

Komunikazio horretan oinarrituz, helduen Ikaskuntzari buruzko "Beti da ikasteko une egokia 2008-2010" Ekintza Plana garatu zen. Plan horri buruzko Batzordearen Txostenaren zirriborroko azken ondorioetan adierazten da 2020ra arte pertsona helduen hezkuntzaren helburuak ondorengo alderdi hauetan kontzentratu behar direla:

Talde sozial ahulei pobrezia eta gizartetik baztertuta geratzea prebenitzeko zuzendutako eskaintzak: kualifikazio profesional baxua edo bat ere ez duten helduak, immigranteak, langabetuak, laneko bizitza luzatzen duten adineko langileak.

Helduek daukatena baino ikasketa maila altuago bat lortzeko (beren egokitzapen-eta laneratze-gaitasuna areagotzeko) "aurrerapauso bat" ekintzak.

Adineko pertsonen (seniorrak) prestakuntzarako arreta, haien gaitasunak indartu egin daitezke eta gizarteak eta etorkizuneko belaunaldiak aprobetxa ditzakete.

Helduen prestakuntza esparruak beste arlo batzuetara dibertsifikatzea, adibidez, atzerriko hizkuntza, Informazioaren eta

Komunikazioaren Teknologia (IKT), ingurumena, garapen iraunkorra, osasuna, berdintasuna, kultura-artekotasuna.

Garapen profesional eta pertsonalerako hezkuntza.

Helduentzako prestakuntza Nafarroan

Nafarroako ikastetxe publikoetan helduentzako eskaintzen den prestakuntza, neurri handi batean, helburu horien ondoriozkoa da eta, batik bat, kolektiborik ahulenetako pertsonen eta beren ikasketa-maila arazotutako eta titulu gehiago lortu nahi dituztenei zuzenduta dago:

Oinarritzko heziketa-ikastaroak honakoei zuzenduta daude: kualifikazio urria duten edo bat ere ez duten pertsonen, ezgaitasun intelektualak dituztenei, gutxiengo etnikoei, hezkuntza sistema goizegi eta inolako titulurik lortu gabe utzi zutenei, Iruñeko Kartzelako pertsonen eta komunitate terapeutikoei.

Immigranteentzako gaztelania-ikastaroak.

Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Ikastaroak (HBHI) oinarritzko titulua lortzeko aukera ematen diete titulua ez duten pertsonen.

Derrigorrezko ikasketen osteko ikasketak (gaueko Batxilergoa eta urrunekoa, lanbide heziketa).

Neurri txikiago batean, helduen ikastetxe publiko batzuek hizkuntza-gaitasuna (euskara eta atzerriko hizkuntza), gaitasun digitala (Teknologia Berrietarako sarrera), aberastasun pertsonalerako (irakurmen

tailerrak eta komunikazio-teknikenak) prestakuntza ikastaroak eskaintzen dituzte, adineko pertsonen askotan eskatzen dituzte eta.

LOEren 66. artikuluan dioenez, helduen hezkuntzaren helburua 18 urtetik gorako pertsona guztiei ezagutzak bereganatu, eguneratu, osatu edo hedatzeko aukera ematea da, pertsonen garapen pertsonal eta profesionalerako; eta hezkuntzaren arloko Administrazioek beste Herri-administrazio batzuekin, toki-administrazioekin eta eragile sozialekin lan egin ahalko dutela adierazten du. Hezkuntza Sailak bere ahaleginak oinarritzko prestakuntzan eta ikasketa arautuetan kontzentratzen ditu, badaki beste erakunde batzuetatik eskaintzen den prestakuntza ez-arautua oso eskaintza zabala dela: udalak (adib. Civivox Iruñean), unibertsitateak (UPNaren Esperientzia Gela, Nafarroako Unibertsitateko Senior Programa, UNED Senior), erakunde sozialak (Civican) eta hainbat elkarte (Francisco Ynduráin Helduentzako Unibertsitatea, BHI...).

Ikastetxe publikoetako eskaintza ahalik eta zabal eta malguena da, pertsonen ikasketa indibidualeko ibilbideak osatzeko, beren behar eta interesetara egokituta:

Goiz, arratsalde eta gaueko ordutegiak.

Lau hilabeteko ikastaroak, Batxilergoa izan ezik.

HBHIin moduluko antolamendua, askotariko ikaskuntza-eritmoak ahalbidetzeko.

Lehenagoko ikasketen balorazioa, forma-

PARTE HARTZAILEAK	
Ikastaro motak	Parte-hartzaileak
OINARRIZKO HEZKUNTZA, HBHI ETA BATXILERGOA (177 ikastaro – 33 herri – 84 irakasle)	
Oinarritzko Hezkuntza Hasierako ikasketak Pertsona minusbaliatuak Gutxiengoak Hezkuntza sistematik kanpoko gazteak Komunitate Terapeutikoen barneko ikasleak	656
Gaztelania immigranteentzat	1.135
DBHko Graduatutako Proba Librean Prestakuntza	46
Helduen Bibarren Hezkuntzako Ikastaroak (HBHI Presentziala Urrunekoak	455 407
Batxilergoa Presentziala Urrunekoak	351 314
GUZTIRA	3.364
PRESTAKUNTZA PERTSONALEKO IKASTAROAK (83 ikastaro – 13 herri – 10 irakasle)	
Informatikarako sarrera	881
Atzerriko hizkuntzetarako sarrera Frantsesa Ingelesa	167 525
Aholkulariak Gelak Ikastaroak (on-line)	150
Kultura Zabalitzeko ikastaroak Irakurketa tailerra Psikologia eta Komunikazio teknikak	127 230
GUZTIRA	2.080

Parte-hartzaileen profila

Sexua	Oinarritzko Hezkuntza: %80 emakumezkoak Gaztelania ikastaroak: %54 gizonezkoak Lanbide Heziketa: %73 emakumezkoak HBHI: %53 emakumezkoak Gaueko batxilergoa: %50 bi sexuak
Adina	Oinarritzko Hezkuntza: %49 50 urte baino gehiagokoak Gaztelania ikastaroak: %50 30 urte baino gutxiagokoak Lanbide Heziketa: %67 50 urte baino gehiagokoak HBHI: %71 30 urte baino gutxiagokoak
Nazionalitatea	Parte-hartzaileen %29 atzeritarrak %27 Marokokoak %10 gaztelaniaz hitz egiten duten herrialdeetakoak %7 Algeriakoak %6 Bulgariakoak %6 Senegalekoak 65 nazionalitateetako parte-hartzaileak

nekoa) ikasgaika eta derrigorrezko iraunaldirik gabe matrikulatzea ahalbidetzen du.

Hezkuntza-beharak dituzten pertsona helduen bizilekutik hurbileko ikastaroak.

IKTak urruneko hezkuntzaren erabilpenean, prestakuntza arautuan (HBHI eta Batxilergoa) nahiz ez-arautuan (Aholkulari Gelak) eta gaztelaniaren irakaskuntzan (Cervantes Institutuaren Gaztelania Gela Birtuala).

DBHko Graduatua zuzenean eskuratzeko edo derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketetara sartzeko proba librean deialdia eta proba horietarako prestatzeko ikastaro espezifikoak.

Datu-etaulak eta ikasleriaren profilarenak, 2010/2011 ikastaroak, lagungarriak izango dira Nafarroako ikastetxe publikoetako helduen prestakuntza-jardueren irudia osatzeko. 94 irakasle, guztira, 260 ikastarotako 5.444 pertsonari eskaintzen diete arreta.

Ikastetxeak

Eskaintza

Helduen Hezkuntzako ikastetxe espezifikoak

Helduen Hezkuntzako Oinarritzko Ikasketen Zentro Publikoak

José M^a Iribarren, Iruñea
Tutera

Helduen Oinarritzko Hezkuntzako Eremuak
Altsasu, Lizarra, Tafalla, Zangoza

Nafarroako Helduentzako Felix Urabayen BHI, Iruñea

Oinarritzko Hezkuntza.
Gaztelania immigranteentzat.
Prestakuntza pertsonala.

HBHI presentziala eta urrunekoak.
Urruneko batxilergoa.

Bigarren Hezkuntzako Institutua

Benjamín de Tudela, Tutera
Marques de Villena, Martzilla
Ega, San Adrián
Plaza de la Cruz, Iruñea
Navarro Villoslada, Iruñea
Benjamín de Tudela, Tutera

HBHI presentziala

Gaueko batxilergoa

Aholkulari Gelak

Iruñea, Tutera, Lizarra, Tafalla, Zangoza, Auritz, Barañain

Gai askori buruzko on-line prestakuntza ikastaroak, prestakuntza arautu gabekoak: ofimatika, programazioa eta diseinua; ingurumena; hezkuntza; kulturalak; ETEen kudeaketa...

lena nahiz ez-formalena, oinarritzko titulua lortzeko ikastaroetan.

Helduentzako Batxilergo eskaintza espezifikoak (gauekoa eta urru-

Egungo krisiak, eta langabeziaren hazkuntzak, prestakuntza eskaintza areagotzea ekarri du, Helduentzako Bigarren Hezkuntzako ikastaroetan batik bat: azken bi urteotan, matrikulak %114 areagotu dira.

Europar Batasunean 2010erako helburu gisa ezarri da herritar helduen ikaskuntza iraunkorrean parte-hartze ehunekoak %12,5eraino areagotzea. Ebaluazio Institutuaren Hezkuntza arloko adierazlearen sistema estatistaren arabera (2010eko Edizioa), Nafarroako 25 eta 64 urte bitarteko herritarren %13k hezkuntza edo prestakuntza iraunkorreko ekintza batean esku hartu zuen 2008an (inkestako erreferentzia baino lehenagoko lau asteak). Helburua erdietsi arren eta Espainiako batez bestekoaren (%10) gainetik egotea lortu arren, bide luzea falta da Finlandiakora (%23) eta Danimarkakora (%30) heltzeko.

Zifrak hotzak dira, baina atzean aurpegia eta bizipen aberatsa dituzten pertsonak daude. Adibidez, 30 urtez administrari gisa lan egin ostean langabezian geratu den eta Enplegu Bulegoan izena ematera joan denean Oinarritzko Batxilergoa soilik daukala-eta ikasketen arloan ezin dutela haren ogibidea jarri esan diotela azaltzen duen 55 urteko emakume bat. Administralari titulua lortzeko zer egin behar duen jakin nahi du, eta ez du adoregabetsen DBHko titulua lortu behar duela esaten diotenean. Lana eskatzen duten pertsonen datu-basean administrari gisa azaldu nahi du, bere bizitza osoan egin duen lanarekin lotutako eskaintzak daudenean beraren izena ager dadin. Beren bizitzako baldintzak hobetzeko prestatzen jarraitu behar eta nahi duten pertsonak dira.



HIZKUNTZEN IKASKETA BIZITZAN ZE HAR

Elena Vallés

**Eskolako Hizkuntza Plan-
gintzaren Zerbitzuaren Zu-
zendaria**

Hizkuntzak ezagutzea eta teknologiak erabiltzea, gaur egun, bizitzako ikas-kuntzaren arlo garrantzitsua dira, eta, gainera, herritarrentzako oinarritzko tresna dira. Hezkuntza funtsezkoa da ekonomia eta gizartearen garapene-rako, jakintzan eta hizkuntzak ezagu-tzean (eta ingelesa, bereziki, nazioar-teko komunikazio-hizkuntza gisa) oina-rritutako ekonomiarako, oinarritzko eta ezinbesteko eskumena da dagoeneko.

Nazioarteko mugikortasuna, familian edo gizartean beste nazionalitate ba-tzuekin batera bizitzea, Europako errealitate linguistiko eta kulturala, laneratzea edo sustapen profesionala, etab. gure nahi, jarrera eta komunika-zio-beharretan eragin ikaragarria duen mundu globalizatuaren ondorio dira. Lan-arloak eta -testuinguruak, eta pertsonalak ere, gero eta birtualagoak dira, ez fisikoak, eta ez daude es-kualde edo herrialde batekin lotuta. Enpresa guzti-guztiek, txikieneke ere, beste hizkuntza batzuetan mintzatzen diren hornitzaile edo bezeroekin erlazi-onatu behar dute, edo atzerriko hiz-kuntzaren batean dagoen dokumenta-zio teknikoak behar dute. Horrez gain, faktore berri eta desberdinak ere kon-tuan hartu behar dira, adibidez, lana bilatzeko emigratu behar izatea eta hizkuntzak ikasteari buruz egin diren ikerketek erakusten dituzten onura neurologikoak eta kognitiboak lor-tzeko.

Hizkuntzak ikastearen garrantziak hezkuntza-sistemak estutasunean jarri ditu; izan ere, 2010-20 hamarkadan behar horri erantzun beharko dio eta gizartea, lana eta ekonomiaren dina-mika berrietara egokitu beharko du. Horretarako, irakaskuntza eta ikaske-tarako metodologia eraginkorrak jaso beharko dira, baita komunikazioaren teknologia berriak eta ikerketa neuro-logiko, kognitibo, emozional eta sozia-leko aurrerapenak ere. Gaitasunen arabera ikaskuntzaren aldeko apus-tua oso mesedegarria da hizkuntzak ikasteko eta gaitasun komunikatiboa garatzeko.

Teoriak dienez, hizkuntza bat ikastea, funtsean, erabilgarria izan daiteke ikaslearentzat, ikasleak gizartean duen papererako. Zentzu horretan, aukera asko daude. Pertsona bakoitzak ikas-ten duen hizkuntzari emango dion erabilera (formala eta akademikoa edo informala) eta helburua (orokorra edo zehatza) identifikatu behar ditu. Gai-nera, norbere bizimodura, adinera, gaitasunera, astira, motibaziora, beha-rrera, etab. hoberen egokitzen den ibilbidea aukeratu beharko da.

Horiek izango dira ikasketa-modalitate jakin baten bilaketa-irizpideak: intentsi-boa edo estentsiboa, presentziala, erdi presentziala edo on-line, auto-ikaskuntza, etab. Eskaintza, nolabait, ia neurrirakoa da.

HIZKUNTZEN EZAGUTZA ZIURTATZEA

Hizkuntza baten ikasketarekin lotuta, hizkuntza bateko gaitasuna neurtzeko instrumentuak eta sistemak garatzeko benetako beharra dago. Enpresek, organismoek eta unibertsitateek hizkuntzetako gaitasunak neurtzeko gai diren instrumentuak eskatzen dituzte, eta gobernuak beren hezkuntza-politiken eraginari eta eraginkortasunari buruzko informazioa behar dute zentzu horretan, eta erabakiak hartzeko.

Gero eta gehiago dira hizkuntzen gaineko ezagutzak ziurtatzen dituzten organoak. Interneten bilaketa bat eginez, era eta helburu askotako ziurtapenak daudela ikusiko dugu.

Bestalde, komenigarria da alde aurretik jakitea zein den horien errekonozimenduesparrua: nazionala edo nazioartekoa, lan-arlokoa edo akademikoa, ezagutza orokor edo zehatzekoa. Estatu Batuek, Australiak eta beste herrialde batzuek beren erakunde ziurtatzaileak dituzte; European, ordea, *Europako erreferentziako esparru komuna: ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa* (EEEE) dokumentuaren zuzentzarauak jarraitzen dira. Dokumentua Europako Kontseiluak hizkuntzalaritzaren arloko espezialistei eskatu zien eta 2001ean argitaratu zen. ALTE (Association of Language Testers in Europe), zantalzarik gabe, European osperik handiena duen hizkuntza-ebaluazioarako elkarte da eta Nafarroako Gobernua haren kide da.

Hizkuntzen ezagutza-mailak

Europako Erreferentziako Esparru Komuna: ikaskuntza, irakaskuntza eta ebaluazioa agiriko ohiko mailen sailkapena:

EEEE			Sailkapen klasikoa
A1	Sarrera (Breakthrough)	Oinarritzko erabiltzailea	Oinarritzkoa
A2	Plataforma (Waystage)		
B1	Atarria (Threshold)	Erabiltzaile independentea	Tartekoa
B2	Aurreratua (Vantage)		
C1	Eraginkortasunez menderatzea (Effective Operational Proficiency)	Erabiltzaile eskuduna	Aurreratua
C2	Maisutasuna (Mastery)		

Sei mailen definizioa:

A1 maila: ikaslea maiz erabiltzen diren esamoldeak eta berehalako beharrak asetzeko esaldi errazak ulertu eta erabiltzeko gai da; bere burua eta beste pertsona ba-

tzuk aurkezteko gai da, baita bere bizilekua, ondasunak eta ezagutzen dituen pertsonen buruzko oinarritzko informazio pertsonala eskatu eta emateko gai da oinarritzko mailan erlazionatzeko gai denean eta solaskideak astiro eta argi hitz egiten badio eta laguntzeko prest badago.

A2 maila: ikaslea berarentzat bereziki garrantzitsuak diren esperientzia-eremuetan sarritan erabiltzen diren esaldiak eta esamoldeak ulertzeko gai da (oinarrizko informazioa bere buruari eta familiari buruz, erosketei, toki interesgarriak edota zereginen buruz, etab.); zeregin sinpleei eta ohikoei buruz komunikatzeko ezagunak eta ohikoak diren gaien inguruko informazio-truke sinpleak eta zuzenak beharrezkoak direnean komunikatzen jakitea eta, oinarritzko mailan, bere iraganeko eta inguruko alderdiak deskribatzen jakitea, eta bere berehalako beharrekin lotutako alderdiei buruzko deskripzioak egiten jakitea.

B1 maila: ikaslea gai da argi eta hizkuntza estandarrean idatzitako testuen puntu nagusiak ulertzeko, gai ezagunei buruzkoak badira, lanaren esparruan, ikasketen esparruan eta aisialdian. Badaki hizkuntza hori erabiltzen den lurraldeetan bidaia-tzean sor daitezkeen egoera gehienetan moldatzen. Gai ezagun edo interes pertsonalekoei buruzko testu sinpleak eta koherenteak osa ditzake. Esperientzien, gertaeren, nahien eta asmoen berri emateko gai da, eta gai da, orobat, bere iritzia labur-labur arrazoitzeko edo bere asmoak azaltzeko.

B2 maila: gai da gai zehatzei nahiz abstraktuei buruz diharduten testu konplexuetako ideia nagusiak ulertzeko, baita testu teknikoak ere, betiere bere espezialitatearen arlokoak badira. Jatorritzko hitzunekin mintza daiteke, jartotasunez eta naturaltasunez, halako eran non ez solaskide batek ez besteak ez duten ahaleginik egin behar elkar ulertzeko. Testu argiak eta xeheak sor ditzake gai askori buruz, eta gai da, orobat, gai orokorrean buruzko ikuspegi jakin bat aldeztzeko, aukera bakoitzaren aldeko eta kontrako argudioak emanez.

C1 maila: gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituak antzemateko. Ba-

daki jartotasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola. Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabil dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin. Testu ar-

giak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa, artikulazioa eta koherentzia zuzen erabiliz.

C2 maila: gai da irakurtzen edo entzuten duen ia guztia erraz ulertzeko. Badaki idatzizko nahiz ahozko iturri desberdinetatik datorren informazioa eta argudioak berberaikitzen, eta era koherentean eta labur adierazten. Badaki bat-batean, jartotasun handiz eta zehaztasunez gauzak adierazten, eta esanahiaren nabardura txikiak bereizten ditu, baita konplexutasun handiko egoeretan ere.

HIZKUNTZEN IRAKASKUNTZA HEZKUNTZA SISTEMAN: HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK

Europar Batasuneko herrialde guztiek barne hartu dituzte beren hezkuntza sistemetan Europako Kontseiluak hizkuntza arloan ezarri dituen gomendioak eta jarraibideak.

Espanian, Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege organikoak nobedade horiek jasotzen dituzte hizkuntza eskola ofizialetan ematen den hizkuntzen irakaskuntzari buruzko artikuluetan. Nobedade horiek ez dira guztiz formalak; aitzitik, hizkuntzek (banan-banan, maila sozialean, kulturean, ekonomikoan) duten paperari, horien ikaskuntzari, irakaskuntzari eta ebaluazioari buruzko kontzeptu berri baten ondorio dira.

Nafarroako hizkuntza eskola ofizialak

1999ko apirilean Iruñean atzerriko hizkuntzei buruz egin ziren I. jardunaldietan, erabaki garrantzitsuak hartu ziren eta zentro horien izaera eta profesionaltasunean eragina dute. Harrezkero, gure Erkidegoan prestakuntza eta erreferentziako ziurtapen zentro bihurtu dira.

Besteak beste, Nafarroako hiru hizkuntza eskola ofizialen beharra koordinatzea erabaki zen, baita bost hizkuntzetarako (alemana, euskara, frantsesa, ingelesa eta italiera) curriculum komunak lantzea eta haien ziurtapenak bateratzea ere. Hiru eskolek Hezkuntza Sailarekin batera lan egitea erabakigarria izan da garapen horretarako.

Historia pixka bat

Nafarroako lehenengo hizkuntza eskola ofiziala 1978an sortu zuen Nafarroako Foru Aldundiak, baina ez zen ofiziala. Estatu mailan, ekainaren 24ko 29/1981 Legeak hizkuntza eskola ofizialak kalifikatu zituen eta haien irakaskuntzak arautu zituen. Irailaren 2ko 967/1988 Errege-dekretuak irakaskuntzak bi mailatan (oinarrizkoa eta goi-maila) antolatu zituen,

eta mailen ziurtapenak definitu zituen, eta 2007ra arte egon dira indarrean.

Nafarroako hizkuntza eskola 1982an bihurtu zen ofizial eta Zaragozako Hizkuntza Eskola Ofizialaren menpe egon zen 1990era arte.

1988an, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala sortu zuen.

1990ean Iruñea eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialak Nafarroako Gobernuaren menpe egotera igaro ziren hezkuntza-arloko eskumen guztiak bereganatu zituen.

Zorionez, Nafarroako Gobernuak 1993an Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofiziala (NAUHEO) sortu zuen, bi helbururekin: Urruneko hizkuntzen irakaskuntza sustatzea (LOGSEko 50. artikulua), funtsean, helduei zuzendua eta hezkuntza sustatzeko tresna gisa eraturia (That's English! ikastaroa); eta Bigarren hezkuntzako ikasleak beren heziketa zentroen eta irakasleen bidez ingelese, frantsesa, euskara eta alemanaren ikasketetako ziurtagiriak lor ditzaten.

Nafarroako hizkuntza eskola ofizialetako antolamendu-aldaketa

LOEk araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzaren helburu gisa ezartzen du ikasleak hezkuntza-sistemako etapa arrunteta-

Baliokidetasun-taula			
Antolamendu akademiko zaharra (irailaren 2ko 967/1988 Errege-dekretuaren 13. artikulua)		LOE ikasketak	
Prestakuntza presentziala	Ziurtape-na	Prestakuntza presentziala	EEEKren inguruko erreferentziadun ziurtapena
Oinarrizko Zikloko 1. maila	Oinarrizko Zikloko Ziurtagiria	Oinarrizko mailako 1. maila	Oinarrizko Mailako Ziurtagiria (A2)
Oinarrizko Zikloko 2. maila		Oinarrizko mailako 2. maila	
Oinarrizko Zikloko 3. maila		Tarteko Maila	Tarteko Mailako Ziurtagiria (B1)
Goi-zikloko 1. maila	Gaitasun Ziurtagiria	Maila aurreratuko 1. maila	Maila Aurreratuko Ziurtagiria (B2)
Goi-zikloko 2. maila		Maila aurreratuko 2. maila	
		C1 maila	C1

tik kanpo hizkuntzak behar bezala erabiltzeko prestatzea.

Ikasketa horiek hiru mailatan antolatuko dira: oinarrizkoa, ertaina eta aurreratua.

Sarrera

Zentro horietan ikasteko gutxieneko adina 16 urtekoa da, eta derrigorrezko hezkuntza mailatan ikasten ez diren hizkuntzetara 14 urterekin sar daiteke.

Aurreko sistemarekin alderatuta, nobedade garrantzitsu bat dago: maila bat baino gehiagotara sartzeko aukera. Antolamendu berria martxan jarri zen arte, gaitasun agiria lortzeko, derrigorrezkoa zen lehenbizi oinarrizko ziklokoa izatea. Gaur egun, pertsona bakoitzaren ezagutza linguistikoa era askotakoa izan daiteke, eta beharrezkoa da bide akademikotik ikastea. Aitzitik, hizkuntza bat ikasteko modu ugari onartzen dira (esperientzia pertsonalak, ikasketetako eta laneko trukeak, Erasmus, etab. herrialde batean bertako hizkuntza ikastea, familia-loturak, autoprestakuntza, etab.).

LABURPENA

Batzuek uste dute hizkuntza bat ikastea erraza dela, baina ez da egia. Batzuek uste dute hizkuntzak ikasteko adin egokiago bat dagoela, baina ez da egia; halere, ezaugarri, faktore eta testuinguru batzuek ikasketa errazten dute.


Helduaroan hizkuntzak ikastea arrakasta izateko baldintza bat erabakigarria da, beste edozein ikasketaren kasuan bezala: motibazioa, eta are garrantzitsuagoa da horretan jartzen den gogoia. Emilio Duròk dioenez, gehiago eta hobeto ikasten dugu bihotza eta ilusioa jartzen ditugunean.

Baina, nolanahi ere, ikasketaren eraginkortasuna, neurri handi batean, egiten dugun ahalegina eta jartzen dugun borondatearen menpe dago. Atzerriko hizkuntza jakin bat

ikasi, hobetu edo perfektionatzeko berezko eta kanpoko beharra duen pertsona heldu batek, dagoen eskaintza analizatu eta bere beharretara eta daukan astira hoberen egokitzen den modalitatea edo ikasketa aukeratu behar du.

Ikasketaren hautaketa eta garapena egokia izateko oztopo izan daiteke haren hizkuntza-maila, eta, besteak beste, hizkuntza eskola ofizialak lan horretaz arduratzen dira.





ESPERIENTZIAK

HUARTE BHI

Antonio Lora

Konfiantza,

hurbiltasun eta

zorrotasun giroa

Huarte BHIn urte luzez egin dugu lan eskola uzteko edota gizartetik baztertuak izateko arriskuan dauden gazteen gizartearatzea, laneratzea eta hezkuntza-integrazioa lortzeko neurri eraginkorren arloan.

Urtero, derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu ez duten nerabeak heltzen zaizkigu, porrotez betetako ibilbidea izaten dute, eta, askotan, jokabide disruptiboekin lotuta egoten dira. Gehienek, dibertsitatearen arretarako programen bidez, lorpen pertsonalak, akademikoak edota lanekoak erdiestea espero dute. Gutxi batzuk, 15 urteko ikasleak bereziki, eskolak derrigorrezko izateari utzi arte denbora "pasatzera" datoz.

Ondorioz, badakigu gure eskaintzaren jomuga diren herritarrak eskola goiz uztea eta prestakuntza iraunkorra bereizten dituen mugan daudela, hobetzeko aukera eskaintzen diegula eta, era berean, kontuan hartzekoa da eskola uztea etorkizunearan pertsona horiek gizartetik baztertuta geratzea eragiten duten faktoreetako bat dela.

Hori dela eta, gure zereginak gazte horiek hezkuntza-ekintzaren erdigunean jartzen ditu eta modu eraginkor eta sortzailean zabaltzen ditu egunero oinarritzen gaituz-

ten printzipioak eta gure zeregina animatu eta bideratzen duten proiektuak:

- Ikasle bakoitzaren jarraipen pertsonalizatua irakasle-talde bidez.
- Ibilbide egokituak dibertsitatearen aurreko arreta eta nolabaiteko malgutasuna ahalbidetzen dute.
- Laneragarritasunerako eskumenen garapenean kontzentratutako programak (oinarrizkoak eta profesionalak).
- Konfiantza, hurbiltasun eta zorrotasun giroa.

Gure helburua ikasle bakoitzaren berreskurapen pertsonalak eta sozialak ikasleari eskola eta lan esparruan positiboki integartzeko gaitasuna ematea da. Eta, horretarako, giza aberastasun handia dugu, zailtasuna hazkuntza-aukera bihurtzen da eta zeregin horretan sinesten duten talde profesional motibatuak sortzen ditu, lana egiteko prestatzen dira eta erantzukizunez gauzatzen dute.

Astero, institutuko hezkuntza-programa bakoitzeko taldea batzartzen da ikasleen jarraipen-prozesua egiteko. Taldea honako hauek osatzen dute: tutorea (modulu profesional-etako eta arlo praktikoko irakaslea izan ohi da) eta oinarrizko modulu-etako

irakasleria, arlo zientifikoa eta teknikoko bat eta beste bat arlo sozialeko eta komunikaziorako. Sarritan, bilerara orientatzailerak ere joaten dira. Bilerak horien antolamendua zuzendaritzataldearen lehentasun

bat da ikasturtea planifikatzeko.

Irakaskuntza-taldea taldearen funtzionamenduaren kudeaketaren ardura da, baita ikerketa, plangintza eta programa eta jardueren ebaluazioarena ere.

Ikasturtearen hasieran aurkeztutako datuetan eta hasierako ebaluazioan jasotakotatik oinarrituz, taldeak neska edo mutil bakoitzaren jarraipena egiten du.

Banan-banako elkarrizketa funtsezkoa da nerabeari ikasturteko bere helburu pertsonalak definitzen laguntzeko eta, ikasturteko dirauen bitartean, helburu horiek ebaluatu eta zuzentzeko, haien ibilbidearen arabera. Zeregin hori taldean gauzatzea erraztu egiten du ikasle bakoitzari proposatutako helburu pertsonalen jarraipena eta balorazioa modu koherentean egitea programaren modulu zehatzetatik abiatuz, eta, horrela, neska edo mutil bakoitzaren errealitateatik eta beharretatik abiatuz, bere helburu eta xede erdiesgarriak definitzeko prozesuaren protagonista bihurtzen da, eta bide hori gela edota tailerraren bidez egiten du eta ebaluazioa xede horiek lortzean kontzentratzen du.

Esku-hartze maila horretan planteatzen diren helburu gehienak oinarritzeko eskumenen garapenarekin daude lotuta, bereziki, sozio-emozionalekin, eta gure neska-mutilek xede horiek erdietsi behar dituzte beren berreskurapen eta hezkuntza pertsonaleko prozesuan aurrera egiten jarraitzeko.

Gainera, taldeak askotan ikaslearen familiarak hartzen ditu, ekarpenak entzuten ditu eta neska edo mutilaren bilakaera deskribatzen du hezkuntza-akordio komunak lortzeko eta guztien lankidetzat bilatzeko. Kasu askotan, neska edo mutilaren hezkuntza-sarean hainbat instantziak esku hartzen dute: sozialek, psikiatrikoek, eskolakoek... Gero eta sarriago ematen diren une horietan ikusten dugu erabiltzen ari garen baliabide horiek koordinatzea eta eraginkor bihurtzea ahalbidetzen duen sareko lana beharrezkoa dela. Gure kasuan, aspaldidanik eskatzen dugu komuni-

tatearentzako lanak egiten dituen teknikari bat, Institututik maila sozialean koordinazio eta jarraipen lan horiek egiten dituzten.

Asko dira irakasle-taldearen astero bilerak eskaintzen dituen abantailak:

• Egunero irakasle-koadernoak erabiliz informazioa jasotzea ikaslearen jarraipenerako dakartzan onuraz gain, sistematikoa izaten laguntzen du (laguntza, ikasgelako lana, etxeko lanak, jokatutakoak...)

• Gure kideekiko harreman pertsonalak eta sozialek hobetzen ditu eta garapen pertsonala bultzatzen du, kontuan hartuz espezialitate desberdinetako irakasle bilerak bat dela eta gai komunei buruz eztabaidatu eta erabaki behar dutela.

• Taldeko kideei babes morala eta segurtasuna eskaintzen die; batez ere, banaka edo taldean zailtasunak dituztela ikusten denean. Beti betetzen dugu gure leloa "Ez da irakasle jakin baten arazoa; taldearen arazoa da eta hortik heldu behar diogu". Eta mezua hori iriste zaie institututako ikasleei.

• Ikasgelaren ikuspegi orokor bat ematen du (esparru bakoitzean zer gertatzen den dakigu eta ez soilik gure "gelan") eta banan-banan eta taldeka ematen den hezkuntza-erantzunaren koherentzia eta eraginkortasuna areagotzen ditu.

• Etengabe erabakiak hartzea dakar eta babesa eta hausnarketa bultzatzen ditu; eta, aldi berean, taldeko kide bakoitzari autoritatea ematen dio.

Ibilbide egokituak dibertsitatearen aurreko arreta eta nolabaiteko maitasuna ahalbidetzen dute

Huarte BHI'n dibertsitatearen arretarako programa batzuk ditugu:

ZEREGINA Huarte BHI'n bigarren hezkuntzako eta antzerki-heziketako institutu bati eta giza eta tekniko bakoitzaren heziketa errealizatzen dugu eta hezkuntza-taldeen bilerak egiten dira, bilerak bakoitzaren helburuak eta errealizazioaren bideak zehazten dira.

- Prozesu pertsonalizatuak modu integralean eginez eta berreskurapen pertsonalarekin
- Gizarteratzea, laneratzea edota eskolaratzea ahalbidetzen duten oinarritzeko eskumenak eta gaitasun profesionalak garatuz
- Esku-hartze giroa eta taldeko lana sustatuz familien lankidetzarekin.

IRAKASKUNTZA Ondorengo helburuak nahi dugun zentzura iristeko dugu konpromisoaren adierazpen gisa:

- Eskola-giro ona izatea eta bizikidetzaren zaintza
- Ikasle bakoitzaren jarraipena eta orientazio pertsonalizatua gauzatzea
- Eskola uztea murriztea
- Laneratzea edota eskolaratzea ahalbidetzen dituzten ibilbide luzeak proposatzea
- Dibertsitatearen arretarako programen garapenean erreferente izatea
- Zentroko langilearentzat garapen pertsonalerako aukerak eskaintzea
- Instalazioak eta espazioak optimizatu eta hobetzea
- Institutuaren irudia hobetzea

ERAKOPAK Gure hezkuntza-komunitatean balore horiek sustatu nahi ditugu:

- Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko lankidetzaren eta errespetua
- Autoestimua eta besteak baloratzea
- Irizkiekin, ekintzekin eta erabakiekin lotutako erantzukizuna
- Eguneroko ahalegina eta profesionaltasuna
- Aukera-berdintasuna eta dibertsitatearen balorazioa
- Inguru sozialeko eta ingurumenarekiko konpromisoa

• Kanpoko CPE

• PIL bat; bertan, ikasleek gaztelania ikasteaz gain, arotzeria eta elektrizitate modulu profesionaletan egiten du lan profesionalki orientatzeko.

• Lau HKPP tailer profesionalak: Errestaurazioa, Sukaldaritza, Elektromekanika eta Automobilgintza.

• Oinarritzeko HKPP bi: Mikroinformatika eta Soldadura

• Erdi Mailako modulu egokitu bat, mantentze elektromekanikoari buruzkoa.

"Funtsezko gaitasunak pertsonen errealizatzeko eta pertsonen garatzeko behar dituztenak dira, baita herritar aktibo bihurtzeko, gizarteratzeko eta laneratzeko ere" (2)



DBH titulua zailtasunekin lortu duten ikasleei edo sarrera-proba gainditu dutenei hiru ikasturteko programa egiteko aukera ematen diote, eta ikasturteak ikasleen beharren arabera luza eta egoki daitezke.

Institutu honetatik eskaini nahi dugun berreskurapen- eta prestakuntza-lan hori ahalbidetzen duten ibilbide luzeak sortzen joan nahi dugu, gure ikasleen behar duten mailagatua izateko. CPE ikasle batek, gero, tailer profesionalen HKPP batean jarrai dezake (edo oinarritzkoan, haren adinaren edota curriculum-gaitasunaren arabera), azkenean, DBH tituluarekin sartzeko edo erdi mailako ikastaro egokitu batera sartzeko gure institutuan (edo beste edozein institutuko erdi mailako ikastaro batera) edo lan mundura zuzenean.

Badakigu gaur egun gizarteak eta lan-arloak laneko prestakuntzako bigarren mailako langileak eskatzen dituztela eta inolako titulurik gabeko emakume eta gizonen kopurua murriztuz doala, eta horiek dira krisi garai honetan ondoriorik larrienak pairatzen dituztenak. Horrez gain, badakigu eskola eta laneko jarraipenaren bidez emaitzak finkatzeko garrantzitsua dela berreskurapen-prozesuetako esku-hartzea luzatzea. Eta ziur gaude, azken finean, erdiko mailako ikastaro egokitua oso aukera interesgarria, barnehartzailea eta eraginkorra dela; Lanbide Heziketa zerbitzuaren apustu horrek dibertsitateari benetan erantzutea du helburu, baita ikasketak goiz uztearen kontra borrokatzea ere, eta oso emaitza positiboak lortzen ari gara dagoeneko. Hori dela eta, sail honekin hitz eginez, ibilgailuen konponketarekin lotutako erdi mailako mekanika ikastaro bat sortzeko lanean ari gara.

Laneragarritasunerako eskumenen garapenean kontzentratutako programak (oinarritzkoak eta profesionalak)

Institututik enpresa-mundura hurbiltzen garen eta "lan-emaleei" galdetzen diegunean ea zein diren kontratatu nahi dituzten pertsonen eskatzen dizkieten ezaugarriak edo gaitasunak, ia den-denek aipatzen dituzte ezaugarri hauek: pertsona onak izatea, entzuten eta komunikatzen jakin dezatela, besteekin lan egitea, zailtasunei aurrea hartuz heltzea... eta beren lana ezagutzea ere nahi izaten dute, baina askok esaten dute hori pixkanaka ikasiko dutela enpresan.

Badakigu lan-mundua ziztu bizian aldatzen dela eta lan jakin batzuk gauzatzeko modu zehatza aldatu egiten dela oso denbora-tarte laburrean; hori dela eta, gure gazteen prestakuntzak "izaten" eta "elkarrekin bizitzen" jakiten lagunduko dieten funtsezko eskumenen garapenean oinarritu behar du, "egiten jakiteaz" gain; horrela, pertsonalki eta lan-arloan azaleratzen doazen errealitate berrira egokitzen joan daitezke.



Hori dela eta, dibertsitatearen arretarako programetan, funtsezko edo oinarritzko eskumen horiek lantzen saiatzen gara (programaziotik ebaluaziora) garapen pertsonala, gizarteratzea eta ikasle bakoitzaren lana lortzeko, Zentroko esku-hartze mailetan.

Sailen eskumenen araberrako programazioak irakaskuntza-taldean programazioan eta jarraipenean barneratzen saiatzen gara, eta adierazi dugun bezala, talde horietan kudeatzen dira arloetako jarduerak eta planifikatzen dira diziplina-arteko esku-hartzeak, espezialitatearen edukia interes-gune gisa hartuz, oinarritzko eskumenak garatu eta aplikatzeko.

Aldi berean, bi urte daramatzagu eskumenak aplikatzeko berrikuntza-proiektuetan lan egiten. Oinarritzko esparruetako (zientifiko-teknikoa, soziala eta komunikazioarena), LPOko, informatikako eta orientazioko irakasleak diziplina-arteko proiektuak garatzen ari gara, eta, ikasleen interesguneetan kontzentratuta: bidaia bat, lana bilatzea, pisu batean bizitzea familiarengandik independizata, etab. bi aste eman ditzaten bertan garatzen joan diren oinarritzko eskumenen aplikazioaren ebaluazioaren bukaeran. Lan horien bidez, gelaren eta ikasgaiaren egituraren haus-tura bilatzen dugu, testuinguru ireki eta erreala-goiak sortuz, horietan eskumenak aplikatu eta ebaluatu ahal izatea, eta, aldi berean, gure neska-mutilen motibazio berezia sortu ahal izatea.

Aldi berean, toki eta baliabide faltak zaildu egiten ditu proiektu alternatibo horiek eta horrelako ikasleekin lan egiteko beharrezkotzat jotzen ditugun beste batzuk aplikatzea. Beste alde batetik, urtero aldaketak egoten dira irakaslerian eta horrek zaildu egiten du plan horien jarraitutasuna mantentzea eta irakasleak ikasle horien arloan prestatu eta espezializatzea.

Konfiantza, hurbiltasun eta zorroztasun giroa

Irakasleen eta AZLen arteko giro ona gure bereizgarrietako bat da, sarritan aipatzen dugu. Sarritan harreman pertsonalak bizitzeko eta gatazkari heltzeko zailtasun bereziak dauzkaten ikasleekin egiten dugun lanerako oso garrantzitsua da hezitzaileok lankidetzara, adiskidetasun eta taldeko lanaren eredu izatea. Ziur gaude gure heziketa-lanaren zati handi bat eskola-giro horretan garatzen dela.

Atsedendaldietako ordutegiak, irakaskuntza-taldean topaketa eta trukea, aste-ko lana astelehen arratsaldeetako bileretan eta, azken finean, arazo asko izan ohi dituzten



ikasle batzuetan kontzentratuta dagoen proiektu baten parte sentitzeak lankidetzagiro positiboa sortzen du, eta eguneroko gatazkak hezkuntza-komunitateko kide guztien hazkuntza-aukera bihurtzen saiatzen gara.

Aldi berean, eskolako giro ona gure hezkuntza-proiektuaren erdigune da. Gure neska-mutilek abegia eta baioratuta sentitzea nahi dugu beren burua onar eta balora dezaten hurbiltasuneko inguru zorrotz batean: *"alde positiboa berreskuratzea beti", "arau gutxi baina oso argiak, gure neska-mutilek beren ekintzen ondorioak aurreikus ditzaten eta erantzule izan daitezten"*.

Eskolaz kanpoko jarduerak, areto-futboleko txapelketek, eskola-jaietan parte hartzeak eta hainbat alderdiren inguruko sariak (ahaleginaren saria, begikotasunarena, erantzukizunarena...) hurbiltasun eta esku-hartze esperientzia hori sortzen laguntzen dute, pertsonak izatera eta haztera gonbidatuta senti daitezen.

Badakigu dibertsitatearen arretarako prestatzen ditugun programak apustu eraginkorra direla eskola goiz uzteko eta hainbat arrazoren ondorioz hezkuntza-ibilbidetik baztertuta geratuz eta eskola-porrota areagotuz

joan diren gazte asko berreskuratze-ko. Horrez gain, badakigu apustu horrek giza baliabide eta baliabide ekonomiko ugari barne hartzen dituela. Baina ziur gaude gizarteak egin dezakeen inbertsiorik onena eta garrantzitsua pertsonengan egiten den inbertsioa dela; bereziki, hezkuntzaren bidez egiten dena. Aberastasun hori, gure gazteen prebentzioak eta berreskurapenak egunero eraikitzen saiatzen garen ezagutza eta lankidetzaren gizartearen eraldaketa, birsorkuntza eta heltzea ekarriko du.

1. Koldo Saratxaga, Cuadernos de Pedagogía, 394 zk., 41 orr

2. EUROPAKO PARLAMENTUA ETA KONTSEILUAREN GOMENDIOA, 2006ko abenduaren 18koa, ikaskuntza iraunkorrerako funtsezko eskumenei buruzkoa (2006/962/EE) (p. L 394/14)





ESPERIENTZIAK

HELDUEN HEZKUNTZA

**JOSÉ M.º IRIBARREN
OINARRIZKO HEZKUNTZAKO
IKASTETXEA**

Uztailaren 20ko 61/2009 Foru Dekretuak Helduen Oinarrizko hezkuntza arautzen du LOEn xedatzen den betetzeko, bi mailatan: Hasierako Ikasketak eta Bigarren Hezkuntza.

Helduen Ikastetxeok xedapen garatuak gauzatu eta martxan jartzen ditugu, garai batean aukera izan ez zuten pertsonen edo ikasketak eguneratu edo beren denbora librean aktiboki bete nahi duten pertsonen bizitza osoan zehar prestatzea ahalbidetzeko.

Bizitzako ikasketaren kontzepzio horretan, guztiontzako eta denbora osoko hezkuntza erronka gisa hartuz, gure zentroan gauzatzen diren jarduerak zentzua dute (Helduak – Lehen Hezkuntza), eta hezkuntza-eskaintza honen alderdi FORMALA EDO ARAUTUA (Hasierako Ikasketak) garatzen dute, eta, ondorioz, lehentasunezkoa da, eta EZ ARAUTUA edo INFORMALA (Gaztelania Atzeritarrentzat, ezgaitasun intelektuala edo entzumenekoa duten pertsonentzako Arreta Espezifikoa, Aberaste pertsonala, etab.).

FORMALA EDO ARAUTUA:

- Hasierako ikasketak I eta II (Oinarrizko titulaziorako bidean)
- Adinez nagusi samarrak izan ohi diren pertsonak, beren gaitasunak eta trebeziak areagotu eta eguneratu nahi dituztenak.

- Adinez nagusi samarrak izan ohi diren pertsonak, beren garaian oinarritzko hezkuntza jasotzeko aukera izan ez zutenak.

- Ziurtagiririk edo prestakuntza akademikorik ez duten pertsonak, Helduen Bigarren Hezkuntzako titulua lortzeko oinarria lortu nahi dutenak.

Ezaugarriak

- Adinez oso nagusiak diren pertsonak, oro har, garapen egokia lortzeko oso bide akademiko luzea behar dutenak (lanean aktiboki ez dihardutenak-hirugarren adina). Haien garapena oso motela da eta haien egonaldia atzeratu egiten da. Hori dela eta, pertsona batzuentzat jarduerak oso garrantzitsuak da topagune sozial gisa.
- Lanean aktiboki aritzeko adineko pertsonen presentzia urria da, eta, pixkanaka, astiro bada ere, gaztelaniaz hitz egiten duten immigranteak eta gaztelaniaz mintzatzen ez diren ikasle analfabetoak, ahozko hizkuntza menderatzen dutenak, sartzen doaz.
- Zaila da III. mailara sartzea (Bigarren Hezkuntza), aurreko mailatik iristen diren pertsonen kopurua oso txikia da, eta, ondorioz, tarteko titulua lortzeko beharra planteatzen da, hau da, DBHko Graduatua baino lehenagoko maila ziurtatzeko, eta lanpostu bat lortzea edo mantentzea ahalbidetzeko.

osoan. Krisi ekonomikoa eta lan falta direla eta, hizkuntza ikasi eta hobetzen saiatzen dira.

- Garrantzitsua da eskualdeko Udalen eta Gizarte Zerbitzuen lankidetzak, baita immigranteekin lan egiten duten beste erakunde batzuen ere, hizkuntza ikasteaz gain falta zaien oinarritzko prestakuntzaren berri izan dezaten (immigrante afrikar analfabetoen ehunekoa oso altua da).
- Kolektibo horretan, ikasketak uzten dituzten pertsonak, ikastetxera jozten dutenen artean, %33 dira. Normala da haien etxebizitza- eta lanaldaketak kontuan hartuz.
- Egunean jartzea gizartearen exigentziei dagokienez, eta aberastasun pertsonala. (Informazioaren teknologiaren erabilpena, hizkuntzak, tailerrak, etab.)
- Egungo gizartearen, etxekoandreei eta pertsona aurre-jubilatuak edo jubilatuak zuzendutako egunean jartzeko eta aberastasun pertsonalerako jardueren eskaera handia.
- Horiek dira gizarteak gehien eskatzen dituen jarduerak, eta asko dira eskaera gehiegi daudelako ikastarotara sartu ezin diren pertsonak.
- Hizkuntza ikastaroak, baina inolako titulurik lortzera bideratuta ez daudenak, azterketak exijitzea eta eskola ofizialen ebaluazioak ekiditeko; izan ere, ehuneko altu batean, ikasleak porrotera edo ikasketak uztera daramatza. Egungo gizartearen moldatzeko oinarritzko ezagutza.

- Haren balorazioa oso positiboa da eta ikasketak uzten dituzten pertsonen indizea matrikulatuen %14koa da, haien asistentzia oso jarraitua da beren denbora librean egin nahi duten jarduerak ongi aukeratzen dutelako.

- Teknologia berrien mundu honetan, jarduerak on-line egin daitezke. Gehiago eskatzen dira jarduerak presentzialak; izan ere, ikasleak eskolara beste ikasle batzuekin eta irakaslearekin edo tutorearekin joan daitezke, topaketa soziala eta bizikidetzaren lehenetsiz.

- On-line prestakuntza, era askotako ikastaroekin AHOLKULARIA GELako jarduerekin, kultura-maila ertaineko pertsonen irteerarako, prestakuntzako bakardadea erraz gaituzte dezakete, eta ikasketak lehenesten dituzte topaketa sozialaren gainetik.

- Kolektibo jakin batzuen beharra (ezgaitasun intelektualen bat edo entzumen-ezgaitasuna duten pertsonak, etab.). Programa espezifikoak.

- Pedagogia terapeutikoan espezializatutako irakasleria, beren bizitzan zehar lortu dituzten trebeziak bultzatzeaz gain, jarduerak komun asko herritarrei helaraztea eta jakinaraztea ahalbidetzen du.

- Oso jarduerak baloratuta da, ikasleek ez dituzte ikasketak uzten eta asistentzia garrantzitsua da, ikasle horiek tutoreengandik jasotzen duten babesa eta jarraipena kontuan hartuz.

Ikasturteko asistentzia %75ekoa da, eta, haien ezaugarriak kontuan hartuz, oso positiboa da, hainbat arrazoren ondorioz (lana, gaixotasuna, familiako egoera) ikasketak uzten dituzten pertsonak matrikulatutako pertsonen %20 direla.

EZ ARAUTUA EDO INFORMALA:

- Hartutako gizartearen hizkuntza eta kultura (Gaztelania Atzeritarrentzat)
- Gaztelania ikasteko ikasle ugari. Gaur egun, oso eskaera handia dago ikasturte



ESPERIENTZIAK



ZUBI ZENTROA

Adeitasunez eta argitasunez

dibertsifikatzea

Jesús Gallego Herranz

Zuzendaria eta hezitzailea Zubi Zentroan

1.- SARRERA

"Eskolak arazo bakarra du: galtzen dituen umeak, hain zuzen. Zuen "derrigorrezko eskolak" urtero 462.000 ume galtzen ditu bidetik. Puntu horretara iritsita, zuek zaretetik eskolarako ezgai bakarrik, ikasleak galtzen dituzue eta ez duzue berreskuratzeko ahaleginik egiten. Gianniren ama ere eskolaren arazoak ikusteko gai da, eta ez daki irakurtzen. Suspenditu duen mutiko bat bihotzean daraman eta estatistikei begiratu bat ematen dien edozeinek ulertzen du". Andero bati zuzendutako gutuna. Barbiano ikasleak. 1967

Eskolako absentismoa, porrota eta ikasketak goiz uztea aspalditik datozen arazoak dira. 1967ko aipuhori XXI. mendearen hasierako errealitatearekin alderatzea erdiragarria da. Eskolako errealitateak aurpegi erdiragarri asko ditu. Ez gaude ospatzeko moduan. Noski, inoiz baino hobeto gaude eta, batez ere, beste toki batzuetan baino hobeto gaude, baina horrek auto-konplazentziara, errealitatea ez onartzera eta alferrik amets egitera garamatza. Eskolako errealitatea eta emaitzak, nagusiki, ez datoz bat gure garaiarekin, ezta energetan, ezagutzen, baliabideetan

eta diruan egindako inbertsio osoan ere.

"Hezkuntzarekin lotutako edozein gairekin, oihanera boli bila doan gizonari gertatzen zaion gauza bera gertatzen zait, hau da, azkenean boli aurkitu zuenean, elefante erraldoi batera itsatsita zegoela ikusi zuen".

Egia esan, elefantearen letaginaz gain, elefante osoaz eta oihan osoaz hitz egin beharko nuke. Baina ez da posible izango. Posmodernotasun eta "likido" gisa deskribatu den modernotasun horren inguruan zerbait esan beharko nuke; entretenimenduaren balore handian oinarrituta dago (gora jaien batzordeak!), bertan, garrantzitsuagoak dira dietetika eta estetika etika baino (noski: jaten duguna garai), eta herritarri (normalean kontsumitzaile edo erabiltze huts gisa tratatzen dute) erantzukizuna eta arima lapurtu dizkiote, eta bizitza pantailan eta irudietan bizi du, eta gero errealitatearen kontra danbatekoa hartzen du, ez dakigu errealitate hori zein puntutaraino den arrazionala, emozionala eta homo videns... Eta gizarte honetan legean oinarritutako hezkuntza-sistema bat antolatu dugu, pertsonetan

oinarritu beharrean (botere handiagoa eman diogu NAOri maisuari baino), tribu osoa behar dugula pentsatzen dugu... baina tribua txorakerietan dabil; hezkuntza-munduan dibertsitateak kezkatu egiten gaitu eta homogeneousunak lasaitu egiten gaitu; garrantzi handiagoa ematen diogu lan-munduari onura pertsonal eta sozialari baino (ustezko langileak prestatzen ditugu, ez herritarrak); eta dena azaldu nahi dugu estatistikoki, baina ondo baino hobeto dakigu pertsonalki dena nahasten dela (Daniel Pennac) (nahiago dugu excel taula on bat pertsonari begietara begiratu baino); baina, hori bai, kalitate-prozesu eztaba daezinekin, baina ez dute berotasunik, ezta argitasunik ere; inoiz baino ballabide gehiago daude, baina ez dakigu ezer xedeei buruz; motibazioa eta ahalegina nahasten ditugu oraindik. Nolanahi ere, ehuneko altu batek lasaitzen gaitu, baina gainerakoak? Zer gertatzen da gainerakoe-kin?

2.- ESPERIENZIA

Ondoren Zubi Zentroak azken 16 urteotan izan duen esperientzia laburbilduko dut. 14 eta 20 urte bitarteko ikasleekin egiten dugu lan Curriculum Programa Egokitueta (CPE) eta Hasierako Kualifikazio Profesio- nalerako Programetan (Oinarritzko HKPP, zehazki, Sukaldari Laguntzailea, Gozogintza eta Ostalaritza Zerbitzuak). Ikasle batzuk egoitza-erregimenean daude.

Azalpen honetan, lau gaitan kontzentratuko naiz: ikasleak, hezkuntzako giroa, balorazio-ebaluazioa eta heziketa-taldea. Horietak bakoitzean, abiapuntu ditugun ziurtasun batzuk aipatuko ditut, baita praktika eta ekintza batzuk ere.

"Pertsona batzuen

zeregin bakarra

besteen artean

artekari gisa jardutea da.

Haien gainetik igaro,

zublak balira bezala,

eta oinez jarraitu"

G. Flaubert

Ezer baino lehen, bi adierazpen egingo nituzke (agerikoak, beharrezkoak eta argiak); izan ere, zati batean argitalpeneko parte-hartze honen zergatia azaltzen dute. Lehenengoa: eskola goiz uzteari eta eskola-porrotari ez zaie heltzen gertatu ondoren, geratu baino lehen baizik. Eta bigarrena: ez dugu irtenbiderik, baina badakigu gauza bera eginez gero emaitza berak lortzen ditugula.

Ikasleak

ZIURTASUNAK:

Pertsona bakoitza giro batekin batera doa, haren bizi-baldintzak konplexuak izan ohi dira, fiabardura ugari izaten ditu... ezin dugu zatitu, ezin dugu desegin.

Guretzat garrantzitsua da ikasleari dagokion erantzukizuna ematea: Hura da bere ekintzen arduraduna, bere ikaskuntzaren erantzulea. Ez dira gertatzen zaienaren erantzule, baina bai gertatzen zaienarekin egiten dutenaren erantzule.

Pertsonaz arduratzen garenean, alde aurretik edukiekiko duen jarrera hobetzen da.

Porrotak bizi izanak ikaslearen izaera, sozializazioa eta, ondorioz, haren prozesu osoa kaltetu du. Askotan, artekari gisa jarduten dugu, edo porrotaren edo erresilientziaren kudeatzaile gisa.

PRAKTIKA

Aurreko ziurtasunak ikusteko baliabide-etako bat **alde aurretiko elkarriketak** dira. Elkarriketaren lehenengo zatian, funtzionamenduaren gaiak azaltzeaz gain, mezu argiak eta zehatzak ematen dira **haien erantzukizunari, ondorioak beren gain harteari, gauzak beste modu batera egiteko aukerari...** buruz, eta berariaz ekiditen dira lehenagoko jokabide negatiboei buruzko erreferentziak, zeharka argitzen diren arren.

Elkarriketa ikasleari zuzenduta dago, mezuak argiak eta zehatzak dira eta zama probokatzaila ere izan dezakete. Bere jokabideak zer ondorio izango dituen azaltzen zaio eta argi esaten zaio berak aukeratzen dituela ondorioak, bere ekintzen bidez. Elkarriketa

ikaslearekin bakarrik hamar minutuz hitz eginez bukatzen da. Gai batzuk birpasatu ondoren, **konpromisoen kontratua** ematen zaio bete eta sina dezan. **Elkarriketa horiek ikastaroan banan-banako tutoretza gisa errepikatuko ditugu, baita gertakari batzuk ebaztean ere.**

Beste hezkuntza-giro posible bat.

ZIURTASUNAK:

Heltze-prozesu batean gaude, eta, ondorioz, askatasun- eta erantzukizun-elementuek **ohikoak izan behar dute haien hezkuntzan, haien pentsamenduan eta haien eguneroko bizitzan.** Elementu horiek lantzeko garrantzitsua da alde aurretik jakitea zein diren ondorioak: ikasleak modu arduratsuan eta askatasunez aukeratuko badu, ikasleak alde aurretik jakin behar du zer gertatuko zaion gauza bat ala beste bat egitea aukeratzen badu.

Konfiantzari dagokionez, aipatzekoak dira **Pigmalionen Printzipioa eta profetia autobetea.**

Aurreko guztiak bizikidetza-esparru bat eskatzen du, baina ezin du barneko ohiko Araubide bat izan. Hori dela eta, **bizikidetza-arau** batzuk landu ditugu. Ezin dugu errepikatu porrot egin duen araugintza-esparrua.

Pertsonalizazioa eta berehalakotasuna. Ezberdin tratatzen ditugu berdin tratatzeko, bidegabekoa da desberdinak diren pertsonak berdinak balira bezala tratatzea. Bizikidetza-arauak, beren heziketa-zamarekin, negoziatzeko eta egokitzeko joko baterako aukera ematen digute, arauari zentzua eman diezaiokete, zergatietan eta zertarakoetan sakontzeko.

Eta egokitzapenarekin batera, **berehalakotasuna** dago. Berehalakotasun horrekin batera, **ohituretan aldaketak eragiteko denbora luzea behar da.**

Inplikazio afektiboa: berotasuna. Giro afektibo beroetan errazago hezten da.

PRAKTIKA

Espazioak, beste giro batzuk, beste harreman batzuk: normalean espazio zabalei buruz hitz egiten dugu, zentro berean kokapen bat baino gehiago ezarri behar dira jardueraren eta aldaketa batzuen arabera, ikasleari porro-

Saiatu behar dugu...

eta azken finean errealitatearen gainean jardun


eta aldatu,

apur bat bada ere,

modu bakarra baita frogatzeko

errealitatea transformagarria dela.

E. Galeano



tak izan dituen bezain "eskolakoa" ez den esparru batean dagoela pentsarazteko.

Denborak, erritmoak, beste pultsu batzuk: eta espazioaz gain, denbora. Dibertsitateari arreta eskaintzeko ezin bestekoa da aldi bat igarotzea eta nola baiteko erritmoa hartzea. Hori dela eta, ordutegia deskonprimitzea eta 9:30a eta 17:30a bitartean erosoago banatzea erabaki dugu. Aldi horretan, zentroan geratzen dira, ikasleek zentroan jaten dute (45 minutuko tutoretza interesgarria, egunero!), atsedenaldi luzeak... ikaslearekin beste erritmo batzuekin hitz egin behar dugu, banan-banako denbora eskaintzeko.

"Zubi Zentroa ez da institutu bat, ezta eskola bat ere". Baina ideia horrek ezin gaitu eraman ikaslearentzat "atsegina" den giro bat sortzeagatik benetan hezitzailea eta zorrotza ez izatera. **Egoitza** CPE eta HKPPen espazio eta heziketa-denbora osagarri bat da, eta, askotan, hezkuntza formalaren ordutegia bete ahal izatea ziurtatzen du. Zalantzarik gabe, ikasle askoren kasuan, CPEko arreta ezinezkoa izango litzateke egoitzan ez baleude, eta ez lirateke aurrerapen jakin batzuk lortuko.

Metodologia: ez da aparteko metodologia liluragarri bat behar. Metodologia zorrotz bat aukeratu dugu, ikasleak oinarritzko ikasketei buruzko benetako zeregina gauzatu behar du, ahal dela indibidualki, norbere erritmo eta mailara egokituta, oinarritzko gaitasun instrumentalak indartuz eta erronkaritzat jotzen dugun arduraldiarekin. Lan egin eta kontzentratzeko trebeziak denbora-ekin, errepikatuz eta ahaleginduz lortzen dira.

Balorazioa - ebaluazioa

ZIURTASUNAK

Arrakasta txikien metodologia. Etengabeko porroten esperientzien kontrakoa. Ikasleek beren aukerak eta lorpenak erakutsi behar dituzte; hau da, "begira zer egin dudana" eta antzekoak.

Ebaluazioa ere dibertsifikatu behar da. Hezkuntzaren erronka handietako bat da dibertsifikatzea, eta edukiei bakanrik aplikatzen diegu (normalean, gutxitzeko, ez dibertsifikatzeko), eta ebalua-

tzeko modu berekin jarraitzen dugu.

Planteamendua integrala bada hezkuntzak ere izan behar du. Zenbakien bidezko ebaluazioak ez du balio.

PRAKTIKA

Parteak: metodologia hori ez da erregistratzen bakarrik egiten, haientzat da, batez ere. Alditxo bakoitzerako ebaluazio-ekintza bat dira (eskoletan 60 minutu), eta denbora-tarte bakoitza aintzatsiz "saritzen" dira, gehienetan arrakasta bat balioesten da eta arrakastamultzo bat osatzen da hainbeste porroten ondoren, edo, bestela, ondorioak azertu, berrikusi, indartu, animatu edo eragiteko... edo onartzeko aukera ematen dute.

Astero **talde-bilera** bat egiten da CPEren ikasleekin eta 20 edo 30 minutu irauten du. Horren bidez, astero balantze bat egin nahi da, pertsona bakoitzari bere ezinegon posibleak adierazi ahalko zaizkio eta, batez ere, esker onak eta asteko alderdirik positiboak.

Gurasoei hiru hilekoko txostenak beste baliabide bat dira, txosten horiek heziketa-taldeak lantzen ditu eta honako atal hauek ditu: Izaera eta nortasuna: alderdi azpimarragarri batzuk; gainera-koekiko harremana: (adiskideekin, heldu hezitzaileekin); ikasgai-ikaskuntzak; hurrengo hiru hilekorako helburu pertsonala, talderako helburua. Komunikatzeko, ebaluatzeko, baloratze-ko, jarraipenak egiteko beste modu bat. Lanketa prozesuan beharrezkoa da gogoan izatea **nor diren hartzailak** (besteak beste, ikaslea), eta ez da ebaluazio-txosten bat bakarrik, animatzailea ere bada eta; hori dela eta, garrantzitsua da alderdi positiboak eta hobekuntzarekin lotutako beste batzuk orekatzeko.

Taldea.

ZIURTASUNAK

Jarrera pertsonalak: segurtasuna, prestakuntza, oreka pertsonala, belduraren kudeaketa eta frustrazioa, etab. Eta egiten duguna zertarako egiten dugun planteatzea. **Zer egiten dugu gertatzen zaigunarekin?**

Talde kohesionatu batean lan egitea, aldezturik hausnartuz, planteamenduak eginez, irtenbideak aztertuz ikaslearentzat ezartzen ditugun helburuei begira etab. Horrek ez du esan nahi **guztientzako konponbidea** dugunik, baina indibidualki eta taldean erantzuteko gaitasun handia dugu, baita antzeko arazoaren aurrean oso antzeko esku-hartzeak gauzatzea ere.

Beste emaitza bat da **agintaritza indibidualak taldeko gainerako kideen diskurtsoaren babesa** duela. Ikasleen aurreko presentzia koherentea funtsezkoa da eguneroko **agintaritza** hori berretsi **eta eredu izateko**. Gogoan izan behar dugu pertsonen imitazioaren bidez ikasteko potentzial handia dutela. Nerabeek ere bai.

Taldeak, agintaritzak eta ereduak behar dituzten jarrerak eta jokabideak hitz hauetan laburbil daitezke: **burua, bihotza eta adorea**.

PRAKTIKA

Taldearen bilera ostiralero egiten dugu 15:30etik aurrera, eta, printzipioz, mugarik gabe. Garrantzitsua da, puntu honetan, informazio garrantzitsua soilik ematea, eta argi uztea **neurriren bat** hartu behar den, **zer egingo den, nork aplikatuko duen, noiz eta, egokia den, nola egingo den**.

Akonpainamenduak: bat baino gehiago dira nolabaiteko hezkuntza akonpainamendurekin, sozialarekin edo terapeutikoarekin datozenak. Beste batzuk gonbidatu egiten dituzte edo akonpainamenduak bilatzen dizkiete Zubi Zentroan sartzean. Akonpainamendu horiekin jarraitzeari gogor egiten zaio uko eta beren betebeharra aitzakia gisa erabiltzen dute kasuan kasuko hitzorduetara ez joateko. Garrantzitsua da puntu honetan argitzea Zubi Zentroak ez duela horrelako zerbitzurik eskainiko bere profesionalen bidez. Batetik, baliabide publikoak erabil daitezzen eta ez daitezzen bikoiztu, eta, bestetik, ikasturtearen iraupenetik haraindi jarraipena emateko esku-hartze horiei. Honako hauei buruz ari gara: Haurren eta Nera-been Arretarako Zerbitzuak (EAIA), Osasun mentala, Suspertu, emakumearentzako arreta...

ONDORIOA

Ez dakigu dena, hau hezkuntza-esperientzia txiki bat da, bizitasuna irabazi du eta hezkuntzak esku-hartze pertsonala, esku-hartze afektiboa eta energia handia eskatzen du. Boterea ez dago egituretan, hezitzaileengan baizik, eta potentziala ikasleengan dago.

Hezkuntza pertsonak kontuan hartu gabe, beldur handiarekin eta dibertsifikatu, egokitu, erantzun eta exijitzeko ausardiarik gabe diseinatzen dugu. Dibertsitatearen arretak, CPEek, HKPek eta antzeko beste baliabide batzuek gorputz handiagoa, garrantzi handiagoa, legitimotasun handiagoa... eman behar diete; hezkuntza-baliabide garrantzitsuak dira oztoporik gabe, heziketa-beldurrik gabe horien diseinuan eta egunerokotasunean.

Indarra galtzen dugu deskoordinazio-gatik, zentroen, erakundeek eta baliabideen artean energiak ez batzeagatik... Beste modu batean hezi nahi badugu, beste modu batean pentsatu eta bizi behar dugu.

*"Ezin dituzue
zuen ikasleak geldiarazi*

*euren ametsen mundua bihar
eraiki dezaten,*

*zuek dagoeneko ez baduzue eu-
ren ametsetan sinisten;*

ezin dituzue bizitzarako prestatu,

horretan sinisten ez baduzue;

ezin duzue bidea erakutsi,

bidegurutzetan,

eseri, nekatu eta etsi baduzue"

Célestin Freinet



ESPERIENTZIA

Urruneko Irakaskuntza Bateragarria da Hizkuntzen Ikasketarekin? THAT'S ENGLISH programa esperientzia

Maite Osés Larumbe
NAUHEOko Zuzendaritza

1. ZERGATIK SORTU ZEN PROGRAMA HAU?

Historia pixka bat.

Galdera horren erantzunak zerikusi handia du gizartean XX. mendaren bigarren erdian egon ziren aldaketekin: irakaskuntza maila sozial eta adin guztietara zabaildu zen, eta perspektiba aidatu egin zen, hau da, hezkuntzan inbertitzea herrialde bat oparo bihurtzeko bide segurua dela pentsatzen hasi zen.

Hezkuntza sistemaren erabiltzaile berri bat agertu zen: ikasle heldua, prestakuntza-behar desberdinak dituen, eta esperientzia eta kultura propioduna, baina familiako betebeharrak, ikasketa etenak, erantzukizun profesionalak... dituena.

Urruneko hezkuntza ikasle horien motibazio garrantzitsuan oinarritzen da espazioarekin eta denborarekin lotutako arazoiengatik zailtasunak dituztenean hezkuntza berezira jotzeko; gainera, auto-ikaskuntzarako gaitasuna beharrezkotzat jotzen da, irakaskuntzako modalitate honek bultzatu egiten du eta ikaslea bere prestakuntza-ren protagonista bihurtzen du.

Baina hori guztia ezinezkoa izango zen azken hamarkadetan egin diren aurrerapen teknologikoei esker izan ez balitz, hezkuntza arloan benetako iraultza bat eragin da.

Testuinguru horretan, 1993an, maila nazionalean Hezkuntza Ministerioak ingeleza urrunetik ikasteko That's English programa sortu zuen, eta, horrela, LOGSEak hezkuntza arloko administrazioei emandako agindua bete zuen, honakoa ezartzen baitzuen: "urruneko hezkuntza arloko eskaintza publikoa zabaltzea, helduen etengabeko prestakuntzari behar bezala erantzuteko". Horretarako, BBC eta TVE erakundeek lankidetzan izan zuten, baita Kanpoko Bankuaren babes finantzarioa ere.

Modalitate hori hainbat Erkidegotan ezarri zen Hizkuntza Eskola Ofizialetan, eta alderdi akademikoen eta ziurtagirien erantzukizuna haien esku utzi zen, eta, horrela, ikasleek titulazio ofizialak eskuratu ahal izan zituzten.

2. ETA NAFARROAN?

Nafarroan, garai hartan, 2 Hizkuntza Eskola Ofizial zeuden: Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofiziala eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofiziala. Baina gure Erkidegoan Ministeriaren ekimena oso modu berezian garatu zen, izan ere, 1993ko urrian Nafarroako Gobernuak **Nafarroako Urruneko Hizkuntza Eskola Ofiziala** eratzea erabaki zuen, eta helburu bikoitza egotzi zion:

1. LOGSEren agindua betetzea, 50. artikuluan honakoa ezartzen baitzen: "Herri-administrazioek **hizkuntza urrunetik** ikasle helduen ikastaroak sustatuko dituzte", (eta *That's English* ikastaroan islatu zen).

2. Bigarren Hezkuntzako ikasleei boluntarioki eta beren ohiko ordutegiaren bidez, Bigarren Hezkuntzako hizkuntza-curriculumak eta Hizkuntza Eskola Ofizialekoak bateratzea, eta hizkuntzetan espezializatutako ikasketetako titulazioak lortzea. (Bigarren programa hori luze deskribatu zen aldizkariaren 23. zenbakian, eta, ondorioz, lehenengo helburua astiroago jorratu ahal da).

Une honetan, beraz, 3 Hizkuntza Eskola Ofizial daude Nafarroan: 2 modalitate presentzialekoak, eta bat urruneko modalitatekoa. Ikaslea bide desberdinetatik eramaten dute helburu berberera, eta Europako Erreferentziako Esparru Komuna erreferentzia gisa hartzen duten ziurtagiri ofizialak lortzen dituzte.

3. ZEIN DIRA THAT'S ENGLISH PROGRAMA-REN EZAUGARRIAK?

Tarteko Mailako curriculumak bederatzi modulutan gauzatzen da, eta informazio eta ebaluazio propioen sistema baten arabera unitate esanguratsu gisa ulertuz. Unitate didaktiko bakoitzak elkarrekintza-ataza zehatz bat du eta zuzenean lotuta dago ikasle helduen esperientzia, interes eta komunikazio-beharrekin.

Urruneko hezkuntzaren sistema osoan, hain-banako ikasketak ikasleak bere ikasketaren erantzukizuna hartzea eta bertan modu sortzailean esku hartzea esleitzen du, modalitate presentzialak baino

gehiago. Zentzu horretan, tutorearen laguntzak garrantzi berezia du, helburuak zehazten ditu eta estrategiarik egokienetara bideratzen da.

Ikastaroa ikasleak astero indibidualki unitate didaktiko bat egin dezan diseinatu da, eta hori ezinbestekoa da tutoretza presentzialerako. Astero ordu eta erdiko saioa programatzen da, material didaktikoekin ikasi dena ahoz praktikatzeko nahiz idatzizko ariketetarako eta ebaluaziorako, baita analisisa eta zuzenketa ziurtatzeko ere.

Baliabide didaktikoak eta babes presentziala

Hasieran, apustu garrantzitsua egin zen multimedia baliabide didaktikoak garatzeko, ikasleak modu autonomoan eskuratu ahal izateko Oinarrizko Zikloko helburuak (orain Tarteko maila - EEEKren B1). Baliabide horien euskarriek eboluzionatu egin dute urteak joan ahala, telebista eta bideoen bidezko emisioetatik egungo baliabideetara igaro da, baina oinarria berbera da oraindik: material didaktikoak (liburuak, CDak audioekin eta material interaktiboekin, eta DVD integratuak), eta horien bidez, hizkuntzaren "aurrean jartzen" da eta aurkezpena eta edukien sistematizazioa egiten da. Gaur egun, teknologia berriek (Internet, posta elektronikoa, blogak, etab.) hainbat material erabiltzeko aukera ematen dute, eta, horrela, hizkuntzaren aurrean jartzeko aukerak esponentzialki biderkatzen dira. Halaber, tutoretza telematikoa ikaslea eta tutorearen arteko elkarrekintza ahalbidetzen dute, zailak ebazteko nahiz orientaziorako eta idatzizko ariketak zuzentzeko.

Baina aukera kopuru zabal hori ez dator bat ikasle horien denbora faltarekin, gutxi batzuek baino ez baitute aprobetxatzen. Errealitatea urtero-urtero ikusten da; hau da, "ikasle arruntak" metodo horren bidez diseinututako zereginak egunean eraman ahal ditu soilik (eta ahalegin handia egingez).

Esperientziak frogatzen duenez, programa eraginkorra izateko ezinbestekoa da ikasleak lan indibiduala sistematikoki eta etengabe egitea edukiak ongi asimilatzeke, eta, horrez gain, ahozko eta idatzizko atazak ere egin behar ditu. Lan hori egin ondoren, astero ordu eta erdiko eskola batera joan daiteke ahozkoa praktikatzeko eta idatzizkoa zuzentzeko. Baina eskola horrek nahi diren emaitzak izateko nahitaezkoa da aurreko faseak erregulartasunez gauzatea.

Argi dago programa horrek motibazio eta diziplina handia eta etengabeko lana eskatzen dituela.

Modulu-izaera

Pertsona helduen ezaugarrietako bat da motibazio handia izaten dutela, baina orotariko betebeharrak izaten dituzte: familia-koak, profesionalak, etab., askotan aldatu egiten dira. Oso ohikoa da ikasturte hasieran, irailean, egoten den eskaera handia. Udako atsedenaldiaren ondoren, guztiok erabakitzen dugu hizkuntza bat ikasi edo hobetzea. Eguneroko bizitzako betebeharrak sarritan adorea galtzen dute.

Errealitate horretan pentsatuz, programa hori moduluka eta izaera malguarekin diseinatu zen, ikasle helduaren ikasketak erritmo egokitzeko. 9 modulu ditu, eta, hasierako mailatik abiatuz, Tarteko Mailara iristea ahalbidetzen du.

Ebaluazioa

9 moduluak hiru ikasturtetan daude banatuta; 6. moduluen azterketak Oinarrizko Mailako ziurtagiria ematen du, eta 9. moduluenak Tarteko Mailakoa. Azken azterketa Nafarroako hiru Hizkuntza Eskola Ofizialeko Proba Bateratu komun bat da.

4. THAT'S ENGLISH PROGRAMA NAFARROAN

Tutoretza-zentroak

Une honetan, tutoretza presentzialak Lizarra, Iruñea eta Tuteran egin daitezke.

Matrikulazioaren bilakaera

Lehenengo ikasturtetik, Programa honek harrera bikaina izan du, eta mantendu egin da martxan egon den 18 urteetan. Urte hauetan, matrikulazioak 1.500 eta 2.000 inguru izan dira guztira. 2010-2011 ikasturteko kopuruak honakoak izan dira:

Ikasleen profila

Ikasleen profilari dagokionez, datu batzuk azpimarratu behar dira:

%65 emakumezkoak dira.

%2 soilik dira 20 urtetik beherakoak, eta gainerako adin-tarteak askotari-koak dira: 21-30 urte: %31; 31-40: %38; 41 urte baino gehiagokoak: %28.

%75 Iruñean bizi dira.

Erdiak baino gehiagok (%56) unibertsita-



tateko ikasketak dauzka, eta %25ek erdi-mailako ikasketak.

%65 lanean ari dira.

dugu motibazioa.

•Babes presentziala dago, txikia bada ere; izan ere, ezinbestekoa da ahozko adierazpenerako.

atzerriko hizkuntza erabiltzeko aukerak areagotu eta dibertsifikatu egin dira azken urteotan. Hori bereziki egia da ingelesaren irakas-kuntzaren kasuan; eta, ondorioz, hizkuntza horretan "alfabetatuta" dagoen biztanleria

areagotu egin da. Bestalde, datuen arabera, urruneko ikaskuntza posible da.

Hori guztia dela eta, gero eta ikasle gehiagok nahi dute modalitate horretan ikasten jarraitu eta Maila Aurreratua (B2 Maila EEEK) ezar dadila eskatzen dute.

MAILA	IRUÑEA + LIZARRA	TUTERA	GUZTIRA
Oinarrizko 1. maila	606	64	674
Oinarrizko 2. maila	461	56	517
Tarteko maila	690	64	754
GUZTIRA	1757	184	1.999

•Ingelesa etengabe eta gero eta gehiago eskatzen da esparru guztietan. Are gehiago, atzerriko hizkuntza baten B1 ziurtagiria izatea exijentzia bat da dagoeneko Nafarroako Unibertsitate Publikoan gradu-titulua lortzeko, eta, maila nazionalen, Bigarren Hezkuntzako Irakasle Masterra lortzeko ere titulazio hori

exijitzen da.

•Eskaintza presentziala ez dagoen tokietan, ikasteko aukera ematen da.

•Materialen eta tutoretzen kalitatea.

•Ematen dituen titulazioak baliozkoak dira, eta urrunetik ziurtagiri ofizialak lortzeko bide bakarra da.

•Prezio lehiakorrak.

6. ETA ETORKIZUNA?

2. Maila Aurreratuaren eskaera (B2 maila)

Zorionez, hizkuntzen ikasketa gero eta presenteago dago hezkuntza-sisteman, eta

Beste hizkuntza batzuen eskaera

Halaber, azken urteotan, ikasle askok eskatu dute informazioa urruneko modalitatearen bidez beste hizkuntza batzuk (frantsesa eta euskara, batik bat) ikasteko informazioa.

Tresna telematikoak garatzea

Argi dago une honetan tresna informatikoek eta komunikazioek aukera berriak eskaintzen dituzte, eta urruneko irakaskuntzak pixkanaka barne hartu behar ditu. Hori horrela da, ikasleek duten denbora-eskasiarekin lotutako zailtasunak dauden arren.

Tresna horien erabilpen egokia, materialen eta ziurtagirien kalitatea eta ikasleen arreta pertsonalizatuaren arteko oreka funtsezkoa izango da dagoeneko finkatutako emaitzen "esperientzia" horren jarraitasuna ziurtatzeko.

5. ARRAKASTA IZATEKO GAKOAK

Argi dago urteak joan ahala eskaera mantendu izanak Programak benetako behar bati erantzuten diola esan nahi duela, hizkuntza bat urrunetik ikasteak dakartzan zailtasun guztiekin ere.

Ez da erraza zehaztasunez adieraztea zergatik izan duen arrakasta programa honek, baina aurreko lerroetan aipatutako arrazoi batzuk gogora daitezke:

•Programa honek eskaintzen duen malgutasuna eta autonomoki ikasteko aukera, baita tutoretzen asteroko edota hiru hilez behingo kontrola eta moduluen azterketak. Denok behar

Bigarren Hezkuntza

18 urtetik gorakoentzako

FÉLIX URABAYEN INSTITUTOA

Fernando Carbajo.

ESPERIENTZIAK

Zenbait klaxe

Helduentzako Bigarren Hezkuntzako Nafarroako Félix Urabayen Institutuak hamaika urte bete ditu, baina INBADen foru bertsioa den INBADen irudia daroa berekin. Agian, urte gutxi dira hamaika urte; kontua da behin eta berriro argitu behar izaten dugula Félix Urabayen Institutua beste gauza bat dela. Lehenengo eta behin, batxilergoari doazkion ikasgaiak ez ezik, Helduentzako Bigarren Hezkuntzari (HBH) dagozkionak ere ematen ditugu. Hain zuzen ere, gurean ikasle gehiago ari dira HBHn batxilergoan baino.

Batxilergoa tutorepeko urrutiko hezkuntzari dagokion modalitatean baino ez da ematen. Horrek esan nahi du asteen, gutxienez, ikasgai bakoitzeko eskola-ordu bat ematen dela (tutoretza kolektiboari doakion) eta ikasleei ikasgelan bertan jaramon

egiten zaiela, beren beregi, banako tutoretzaren modalitatean. Bestalde, HBH ere bertaritze-modalitatean ematen da, goizeko eta arratsaldeko txandetan.

Argitu beharrekoak dira, baita, nori esaten diogun "heldu" eta, oro har, zein den gure ikasleen profila. Lehen, hogeita hamar urtetik gorako langileak izaten ziren, hots, ikasteari eutsi asmoz edota kultura-prestakuntza hobetu xedez eguneroko lanaia amaitu ondorik ikastetxera hagitx motibaturik etortzen ziren ikasleak. Orain, ordea, lanik gabe dauden edo lan-egoera iraungaitzean diren gazteak etortzen dira gurera; izan ere, gazteok argi ikusten dute ezen, bigarren hezkuntzako graduatutitulua atera ezik, askozaz zailago izanen dutela lana aurkitzea. Batxilergoko ikasleen profila ezberdin samarra da; horietako batzuk -gutxi- HBHtik etortzen dira, baina gehienak beste ikastetxe edo institutu batzuetatik iristen dira, ikasmaila errepikatzeko edo gainditzeke dituzten ikasgaiak bukatzeko; eta, zalantzarik gabe, ikaslerik


gehi-
ten
dako
edo
etara
daude-

enak nahiago izateko txandak eskola-orduetara tutoretza kolektiboetara. Lanik gabe nek, arratsalde libre eduki nahi dutelako; lanean jarduten dutenek, kasu askotan (% 40tik gora) txandak aritzen direlako. Azken finean, labur esanda, Félix Urabayen Institutuaren egungo errealitatea ez dator bat duela hogei edo hogeita hamar urte nagusientzako hezkuntzari buruz geneukan irudiarerkin.


Félix Urabayen Institutuko egoera

Egun, mila ikasle baino gehiagok ikasten dute Institutuan, eta hogeita hiru irakasle jarduten dute haiekin lanean. Institutuko ikasle-kopuruaren bilakaerak gutxienez bi funtsezko eragile dituen prozesua erakusten digu. Alde batetik, DBH, hark izan dituen arauzko aldarazpen guztiak gorabehera, garatuz joan da azkeneko hamabost urteotan; HBH, azkeneko hamaika urte hauetan, aniztasunari jaramon egiteko neurriak abiarazi arren graduatu-titulua

Adinak. Uneko ikasturteko lehen lau hilabeteak dagozkion datuak		
Adina	HBH	Batxilergoa
17	1	0
18	10	1
19	178	16
20	91	31
21	63	47
22	55	46
23	39	38
24	20	23
25	22	26
28	72	54
36	90	27
46	66	12
58	20	6
66	1	0
Batez besteko adina	26,6	25,7



[Número de alumnos]



eskuratu ez duten pertsonentzat xedatu da. Beste alde batetik, ekonomiaren alorrean egun jasaten dugun krisiak oso aukera gutxi ematen dizkie prestakuntzarik ez duten langileei. Gure aburuz, bi egitate hauek aldi berean gertatu izanak eragin du 2006-2007. ikasturtetik aurrera ikasle-kopuruak hain nabarmenki gora egin izana; igoera horrek askoz ere eragin handiagoa izan du HBHn batxilergoan baino.

HBHk bere curriculum du, berariazkoa, zenbait ikasleremutan antolatutako bost gai jasotzen dituena: gizarte-eremua (Gizartea), zientzia eta teknologia arloa (Matematika, Natura eta Osasuna) eta komunikazioa (Gaztelania eta atzerriko literatura eta hizkuntza). Ikasgai bakoitzean lau modulu sartzen dira eta modulu horiek lau hileko aldietan ematen dira, halako moldez non ikasleak HBH osorik amaitzen ahal du bi urtetan. Dударik gabe, moduluon iraunaldi laburrak ikasleen motibazioa pizten ahal du, baina, aldi berean, lanerako aukerak ere mugatzen ahal ditu, ikasteko arazoak dituzten ikasleei dagokienez. Arazo horiek hiru kari izan ditzakete:

- Hizkuntza menperatu ez izatea. (Berrogei herrialdeko ikasleak ari dira gurean; atzerriko ikasleak guztirako ikasle-kopuruaren % 30 dira).

- Aurretiazko eskolatzeko egokirik ez izatea.

(Maizenik, 1 eta 2. ikasmailetan gertatzen da hori)

- Ikasteko azturarik ez izateaz gain, ikasten dena norberarenganatzen teknika eta estrategiarik ere ez izatea.

Zenbait kasutan, hezkuntzaren arloan beharizan bereziren bat duten ikasleekin lan egiten dugu, hau da, adin-nagusitasunera iritsi ondorik ikasteari eusteko bestelako aukerarik aurkitu ez eta Félix Urabayan Insti-

tutura etortzen diren ikasleekin. Horri dagokionez, baina, honakoa da arazoa: Institutua ez dagoela taxutua adimen-ezintasunen baten ondoriozko hezkuntza-beharriaz erantzuteko, eta ez duela horiei berariazko bitartekoak erabiliz jaramon egiteko modurik.

Batxilergoari doakionez, eta logikoa denez, ikasleek oinarri hobea ekartzen dute, zeren bigarren hezkuntzako graduatu-titulua baitute; hala ere, atzerrian ikasi duten ikasle batzuek egokitzapen-arazoak izaten dituzte zenbait kasutan. Kontuan hartu behar dugu ezen helduentzako batxilergoari dagokion curriculum ikastetxe arruntei doakiena bera dela. Ondoko hau da maizenik gertatzen den arazoa: ikasleek ez dutela urrutiko irakaskuntzak eskatzen duen diziplina, ez eta ikasteko azturarik ere, tutoretzak ikasle bakoitzak egiten duen lanaren euskarri huts besterik ez direlako. Norberaren kabuz ikasteko sistemaren alorrean nolabaiteko autonomia bereganatu ez duen ikasleak hainbat arazo izaten ditu batxilergoan amaitzeko.

Are zailagoa da tutorepeko urrutiko hezkuntzari dagokion modalitatean jarduten duten ikasleentzat. Urte askoan ari gara ikasgela birtual bat lantzen, ikasleoi urrutiko irakaskuntzarako materialak eta jarduerak eskaintze aldera. Horrela, tutoretzen lana sendotzen eta norberaren ikaslana bultzatzen ahalagintzen gara. Ikasgela birtuala mailaz maila erabiltzen ere saiatzen gara, bertaratze-irakaskuntzaren euskarri ezin hobea baita.

Egitateak eta etorkizunerako aukerak

Une honetan, Félix Urabayan Institutuaren edukiera gainez eginda dago, eta eskaintza ez zaio doi-doi eskariari egokitzen. Hain justu ere, HBHko ikasleek goizeko txandako bertaratze-irakaskuntza eskatzen dute; ho-

rrenbestez, urrutiko ikasketak jasotzeko matrikulatzen diren pertsonarik gehienak bertaratze-irakaskuntza plazarik libre ez egoteagatik matrikulatzen dira. Ikasle horietako askok, baldintza horietako ikasketek berez dituzten arazoez ohartzean, amore eman eta atzera egiten dute. Egia esan, ez dakigu zenbat denbora iraunen duen krisi honek, eta krisitik irteerak plazaren eskarian eraginik izanen ote duen.

Dena den, daturik adierazgarriena ez da ikasketak uztearena, arrakastena baizik. Izan ere, inolako zalantzarik gabe, ikasleentzat arrakasta itzela da titulua eskuratzea; era berean, ikastetxearentzat ere arrakasta handia da koadroan erakusten den titulukopurua jadestea. Baldin eta, badirudenez, irakaskuntza arruntean adierazgarriena eskola-porrotaren portzentajea nabarmen-tzea bada, nagusientzako irakaskuntza titulua lortzen dituzten eta lanbide heziketarako bidea urratzea erdiesten duten ikasleentzako portzentajeaz jabetzea da garrantziko-ena, horixe berori jadestea baita ikasle gehienek asmoa.

Gai hau bereziki hausnartu beharrekoa da. Abagune ekonomikoa bazter utzita, helduentzako bigarren hezkuntza arretaz jorratu behar dugu, prestakuntzaren arloan langileek dituzten beharriaz -krisiak nabarmenkiro azaleratu dituenak- estaltzeko baino ez bada ere. Duda barik, bigarren hezkuntzako titulua geroko langilearen trebaldaren giltzari nagusiak dira. Bigarren hezkuntzako graduatu-titulua eskuratu ez duten gazte askorentzat, HBH da gizartean egokiro jarduteko oinarritzat jotzen ditugun trebetasun horiek norberarenganatzen bide bakarra. Ildo hori jarraiki, batxilergoan da goi ikasketak atzitzeko bide nagusia, bai lanbide heziketa gorenari dagokionez eta bai unibertsitateko ikasketei doakionez ere.

Gure iritzian, honako hau da helduentzako bigarren hezkuntzaz aritzeko ikuspegi egokiena. Lanean jardun ez ezik kultura maila handiagoa izate aldera ikasten ere ari den pertsona helduaren irudia ez dator bat egungo errealitatearekin. Hezkuntzak berrogei urtean Espainian izan duen hedadurak jokoz kanpo utzi du irudi hori, apurka-apurka. Egungo errealitatea bestelakoa da, eta beste aukera batzuk galdu ondoren bere lanpostua hobetu nahi duen, edo egun normalagoa denez, lanposturen bat atzitzeko aukerak areagotu nahi dituen gazteari dagokio.

Ikasle tituludunak		
Ikasturtea	HBH	BATXILERGOA
2006-2007	39	23
2007-2008	34	45
2008-2009	43	51
2009-2010	75	47

Ikastetxea

Iruñeko Santa Catalina Labouré Eskolaren (Erakunde Titularra: Hijas de la Caridad de San Vicente de Paúl) heziketa-helburua pertsonen garapenera bideratuta dago. Bere errealitate soziokulturalean, Jesukristoren mezuaren adierazgarri da; ikasleak gizartearen integratzen ahalegintzen da, baita behartsuekiko sentsibilizazioan, harremanetan eta heziketa-giroan ere sinpletasunetik abiatuz eta bizitza eta naturarekiko errespetutik. Jakintzaren balorazioa besteak hobeto zerbitzatzeko bidea da.

Ikastetxea 1948an sortu zen. Nafarroako herrietako barnetegi gisa irakasten eta hezten hasi zen. Denbora joan ahala, gizartearen eraldatu egin da eta behar berriak sortuz joan dira, hezkuntza-sistema aldatu egin da eta horren guztiaren ondorioz, zentroa egungo egoerara dago.

Gaur egun, las Hijas de la Caridad, irakasleak eta irakasleak ez diren beste langileak taldeak proiektu kristau-bizentzianoarekin jarraitzen dugu eta kultura-artekotasunaren erronka onartzen dugu. Zentzuz bizitzen laguntzen diren irakaskuntza baten sinesten dugu eta horren alde egiten dugu apustu, gazteei baloreak garatzea ahalbidetzen dien oinarritzko ezagutza eta eskumenak barne hartzen dituen hezkuntza integralaren eta solidarioaren alde.

HKPPren Prestakuntza Profesionala

Eskola Idazkaritzaren adarrean hasi zen lanean, hiru ikasturtetan, eta takigrafia, mekanografia eta hizkuntzak lehenetsi zituen.

Administrazioaren arloko Lanbide Heziketara igaro zen, bi ikasturteko ikastaro batekin, eta kontabilitatea, mekanografia eta ingelesa irakatsi zituen bereziki.

Legeak aldatu zirenean, Prestakuntza Ego-kitua bi modalitatetan (administratiboa eta osasun-arlokoa) eskaintzen hasi zen, eta, gero, Bulegoko Laguntzailea LHP, ikastaroa praktikekin, aplikazio informatikoak eta Internet erabiliz, eta, iegearen beste egokitzapen batengatik, Bulegoko Laguntzaile eta Oinarritzko Informatika HKPP delakora aldatu zen.

2009/2010 ikasturtetik Bulegoko Laguntzaile eta Oinarritzko Informatika Hasierako Kualifikazio Profesionalarako Programa eskaintzen du.



Gaur egun, ikasleek Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalaren arabera Bat Mailako ziurtagiri profesional bat lortzeko eta DBHko titulua eskuratzeko bide bat da.

Gure HKPP

- Oinarritzko modalitateko HKPP bat da, bi urtekoa. DBHn eskolaratuta dauden eta bat mailako kualifikazio batekin berezko dituen gaitasun profesionalak lortzeaz gain DBHko graduatuaren titulua eskuratzera bideratutako izaera boluntarioko moduluak egiteko konpromisoa hartzen duten pertsona gazteei zuzenduta dago.
- Bi motatako moduluetan antolatzen da (taula ikusi):

A) Derrigorrezko Moduluak. Honako mota hauetan sailkatzen dira:

- Oinarritzko Moduluak. Oinarritzko Gaitasun orokorrak zabaltzen dituzte eta lagungarriak dira hezkuntza sistematik lan-mundura igarotzeko.
- Modulu Profesionalak. Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionalaren arabera bat mailako kualifikazioen gaitasun-unitatei buruzkoak dira.

B) Modulu Boluntarioak. Oinarritzko HKPP modalitateko moduluak dira eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu

titulua lortzea ahalbidetzen dute, ez dira derrigorrezkoak ikasleentzat, 16 urtetik beherakoek kasuan izan ezik.

- Hamabi eta hamahiru ikasleko talde bi daude. Talde txikiak direnez, konfiantzazko giroa sortzen da eta taldeko lana gara daiten, baita lankidetzaren ere. Horri esker, trebetasunak, teknikak eta gaitasunak lor daitezke elkar ulertzeko, balorazioak, errespetua bereganatzeko eta norbere buruarekin, besteekin eta inguruarekin bizitzeari gozatzeko lortzeko.

- Lan-praktika fase bat du, eta, fase horretan, ikasleak lehenengoz hurbilduko dira lanaren mundura. HKPPren funtsezko helburu bat da ikasleek laneratzeko gaitasunak lortzea. Prestakuntza praktikoaren bidez, ikasleek aukera dute, batetik, bereganatu dituzten ezagutzak islatzeko, eta, bestetik, beste ezagutza osagarri batzuk lortzeko, lan-arlo aberats batekin kontaktuan egoteari esker. Modulu profesionalen bidez, ikaslea banandu egiten da lan-arloan arau sozialak onartu eta gauzatzeko, eta irizpide profesionalak, erantzukizunak eta jarrera positiboarekin jokatzeko.

- Hezkuntzara aplikatutako IKTak erabiliz irakasteko metodoetan aldaketa garrantzitsuak eragiten ditu eta mesedega-

HKPP BULEGOKO LAGUNT- ZAILA ETA OINAR- RIZKO INFORMATIKA	Moduluak	Asteko orduak
Oinarrizko Moduluak 1. MAILA Programa onesteko Modulu Boluntarioak 2. MAILA DBHko titulua lortzeko	Komunikazioaren esparrua	4
	Esparru Soziala	2
	Esparru Zientifiko-teknologikoa	6
	Lanerako eta enplegurako orientazioa	1
	Taldeko tutoretza	1
	Osasunerako hezkuntza	1
Modulu Profesionalak 1. eta 2. MAILA Bulegoko Laguntzailea eta Oinarrizko Informatika kuali- fikazioa lortzeko	Datuen tratamendua	3
	Erreprodukzioa eta artxiboa	3
	Datuen grabazioa	2
	Bulegoko oinarrizko teknika administratiboak	4
	Komunikazioko oinarrizko eragiketak	2
	LANEKO ZENTROETAKO PRESTAKUNTZA 150 H 2. MAILA	

rria da zenbait gaitasunetarako. Informazioa eta eskumen digitalaren tratamendua-
ren eskumenaz gain, besteak beste, auto-
nomia eta ekimen pertsonala, sormena eta
hizkuntza-komunikazioa garatzea dakar.

Horretarako, hainbat proiektu proposatu
dira, esaterako, zenbait jarduera motiba-
tzaile eta sortzailean parte hartzeko blog
bat, film laburren analisisa, gaurkotasu-
nezko gaiet buruzko idazki propioak, fikzi-
ozko narrazioak, mezu bat duten olerkiak
eta abestiak hautatzea, etab. Hori guztia,
gelan ikusitakoarekin bat etorritu.

Emaitza oso positiboa izan da ikasleak
motibatuta daudelako eta aktiboki esku
hartzen dutelako; zenbait trebeziatan lan
egiten dute eta beren aldetik zerbait ipiniz
gero besteei ekarpen handia egin diezai-
ketela ikusten dute.

- Tutoretza taldeka eta banan-banan
gauzatzen da eta oso tresna garrantzitsua
da. Baloreetako prestakuntza, gertakarien
ikuspegi positiboa, plataforma digitalen
bidezko komunikazioari esker, "bestearen"
munduaz ohartzen dira.

Langileriaren jarraipen pertsonalari, barne-
ratzearen bidezko eguneroko kontaktu
hurbilari eta hausnarketari esker, beren
"nia" deskubritzen dute beren emozioekin,
sentimenduekin, bulkadekin... Plantea-
mendu negatiboak edo motibazio urriko
egoerak gaintzen laguntzea ere gure

lanaren eta ahaleginaren zati da eta fami-
liak prozesu horietan barne hartzen dira.

Ikasleriaren ezaugarriak

Programak hasten dituzten ikasleek oso
ezaugarri desberdinak barne hartzen di-
tuzte:

- Batzuk, gaitasun intelektual onak dituz-
ten arren, ez dira ongi moldatzen hez-
kuntza sistemarekin eta azkenean ez
dute DBH gaintzea lortzen.
- Beste batzuek ezaugarri fisiko edo
intelektualen bat dute eta ezin dute
bigarren mailako garapen arrunta ja-
rraitu.
- Arazo sozialak dituzten ikasleak (familia
desegituratuak, gizartetik baztertuak,
immigranteak, etab.), familia-lotura
ahulak dituztenak eta ondorioz ikaske-
ten aurrean motibazio falta dutenak.
- Gehiegi babestuta dauden eta autono-
mia pertsonala atzeratu duten ikasleak.
- Batzuetan zailtasunak izaten dituzte
lasaitzeko, intimitaterako eta senti-
mendu pertsonalak agertzeko.
- Bakartasunerako joera duten ikasleak,
"lagunez" inguratuta egon arren mundu-
tik isolatzen direnak, entzunak izateko
beharra dutenak eta argibideak behar

dituztenak.

- Beste batzuk komunikabideen menpe
daude, beren borondateetik deskonekta-
tuta edo beren aukeren inguruko auto-
estimu baxua dute.

Gehienak beren aurreko eskola-
esperientzien "etiketa" daramate eta ego-
tzi dieten rola sinesten dute: "alferra",
"axolagabea", "pailazoa", etab.

Lehenengo azterketen emaitza positiboe-
kin, egoera hori aldatzen da, "nahi badute,
ahal dutela" ikusten dute, gatazkei aurre
egiteko modutik erabakiak hartzeko modu-
rario.

Esaten duten lehenengo gauza hau da:
"azterketa etxera eramane dezaket gura-
soek ikus dezaten?". Eta hasierako une
horietan erabakigarriak dira gure ikasleak
ibilbiderako. Berehala hasten dira beren
buruan eta beren aukeretan sinisten, eta,
horri esker, ikasten eta ikasteko motiba-
tzen hasten dira. Guztiok ez dugu hasiera-
hasieratik erantzuten. Batzuk hainbat hila-
bete igaro ondoren konturatzen dira.

Erabilitako metodologia

- Bizipenezkoa: esperientzian oinarrituta
dago eta eginez irakasten du egiten.
- Mediatikoa: komunikabideen kulturen
bizitzaren ikasteko prestatu da, tresna
informatikoak erabiltzeko eta sare so-
zialen munduan bizitzeko.
- Sozializatzailea: klastroak bere ikas-
leek arduratzen den talde bat osatzen
du.
- Autonomia: ikaslea ikasketaren prota-
gonista aktibo bihurtzen da eta hezitzaile-
a pertsona bakoitzaren potentziala
argitzeko liderra da.
- Tutoriala: gauzatzen diren ekintzen ar-
datz artikulatzailea.
- Diziiplina-artekoa, eta hezkuntza formal
eta ez formaleko sareen arteko lotura-
duna.

Gure zeregin hezitzailea

Ikasturtea hasierako ebaluazio probak
eginez hasten dugu, taldearen benetako
ezagutza-mailari buruzko informazioa lor-
tzeko. Beren interesak, motibazioak eta
baladintza pertsonalak ezagutzeko galdetegi
batzuk helarazten dizkiegu. Aldi berean,
orientazio sailak ikastetxei informazioa
eskatzen diete ikasle bakoitzari buruz. Hori
guztia dela eta, urtero ditugun ikasleak
profil bat lantzen dugu. Une horietatik au-

rrera, lan egiten hasten gara.

Ikasle bakoitzak tutorearen jarraipena du, tutorea familiekin harremanetan egoten da etengabe eta haien seme-alaben garapenaren berri ematen die.

Irakasleen lanari dagokionez, hainbat alderditan gaitu nahi izaten ditugu:

- **Ezagutzen ikastea:** arreta, oroi-mena eta pentsamendua baliatuz.
- **Egiten ikastea:** bulegoko laguntzaile eta oinarritzko informatika profilarekin lotutako zeregin material bat egitea.
- **Izaten ikastea:** autonomia, sena eta erantzukizuna garatzea.
- **Egote ikastea:** ikasgelan nahiz edozein egoeratan jokatzeko gai izatea.
- **Transzenditzen ikastea:** aholkulari espiritualaren laguntzarekin, pertsona izatearen eta gizartean eta munduan bizitzearen zentzua aurkitzen dute; "zergatik" eta "zertarako" bizi topatzen dute.


Praktikak zentro lankideetan.

Lan-merkatu zuzenean sartzeko lanbide heziketa eskaintzea Programaren parte da. 150 orduetan, gutxi gorabehera, eta bigarren ikasturteko azken hiru hilekoan, ikasleek lan-praktikak egiten dituzte Santa Catalina Labouré Ikastetxearekin lankidetzan aritzen diren zentro eta enpresekin.

Lan zail samarra da, gure ikasleen hazkuntzan lagundu nahi duten zentro eta enpresak bilatu eta haiekin elkarriketak izatea eskatzen baitu. Tutore batek lan-espereientzia horretan gidatu eta irakasten die.

Ikaslearen jarraipena egiten dugu, enpresa lankidea bisitatuz eta ikasle bakoitzaren banan-banako jarraipena eginez, haren gaitasunak eta trebeziak kontuan hartuz. Puntueltasuna zaindu eta lantzen da, baita zereginen inguruko erantzukizuna, ongi egindako lana, eta abar ere.

Egia esan, gure eskarmentuan oinarrituz, ikaslea oso motibatuta sentitzen da lan merkatuari dagokionez. Lan baten gaineko erantzukizuna lehenengoz ezagutzen dute, eta, gainera, motibazio gisa balio die gogoko mailak ikasten jarraitzeko. Enprestan gero eta prestakuntza espezializatua goa bilatzen ari direla ohartzen dira, baita lehen urratsa egin duten arren prestakuntzarekin jarraitu behar dutela ere.



Bukatzeko, azpimarratzekoa da ikasleentzat oso aberasgarria dela beste urte batzuetako ikasleekin topo egitea eta Erdi Mailako Heziketa Zikloen bidez Lanbide Heziketako prestakuntzarekin jarraitzen dutela ikustea.

HKPPren ostean

Grafiko honetan ikusten den bezala, HKP-Pak dibertsitateari erantzuteko neurri gisa jaio ziren, beste bide arrunt batzuk agortu ondoren, eta derrigorrezko hezkuntzako helburuak erdiesten ez dituzten ikasleentzat.

Moduluak gainditu ondoren, ikasleek Bigarren Hezkuntzako Titulua lortuko dute, eta, horri esker, Erdi Mailako hainbat modalitatetara nahiz batxilergora sartzeko aukera izango dute. Oso ondo zehaztuta ez dauden interes profesionalak dauzkaten gazteak direnez, beren motibazioak beti egoten dira lanbide heziketara bideraturik.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarritzko gaitasunak bereganatu ez dituzten ikasleen kasuan, sarrera-proba eginez Erdi Mailako Heziketa Zikloetara sartzea ahalbidetzen saiatzen gara.





Nafarroako Eskola Kontseilua Hezkuntza Batzorde Nagusia

<http://irati.pnte.navarra.es/consejo.escolar.navarra>
Irunlarrea 7.zk. 1. 31008 Iruña

Hezkuntza-kuomunitatearen partaidetzarako
organu gorena da

Osaketa:

HEKUNTZA ADMINISTRAZIOA Erakunde Patronalak
Udal Administrazioa Langileen Sindikatuak
Irakaskuntza ez unibertsitarioaren Gurasoak
Administrazio eta Zerbitzuen Pertsonala
Irakaskuntza ez unibertsitarioaren Ikasleak
Ikastetxe Pribatuen Titularra
Unibertsitateak Nafarroako Parlamentua
Irakasleak
Hezkuntza eremuan ospe handiko pertsonak